



# GAZTE PLANAK ETA PROGRAMAK PROGRAMATZEKO ETA BALIOZTATZEKO ESKULIBURUA

#gazteplana#  
— 2002-2005 —

# Gazte planak eta programak programatzeko eta balioztatzeko eskuliburua

(EAEko Gazte Planaren eredua)

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**

Kultura, Gazteria eta  
Kirol Sailordetza  
*Gazteria eta Gizarte Ekintzarako  
Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**

Viceconsejería de Cultura,  
Juventud y Deportes  
*Dirección de Juventud y Acción  
Comunitaria*

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2004

**Gazte** planak eta programak programatzeko eta balioztatzeko eskuliburua :  
(EAEko Gazte Planaren eredua). – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren  
Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2004  
p. ; cm. – (Gazte plana ; 11)  
ISBN 84-457-2155-0  
1. Jóvenes-Protección, asistencia, etc.-Euskadi-Planificación. I. Euskadi. Dirección  
de Juventud y Acción Comunitaria. II. Serie  
364.65-053.81(460.15)

*Argitaratutako tituluak:*

1. EAEko Gazte Plana 1999-2001
2. Plan Joven de la CAV 1999-2001
3. Euskadiko bekak, dirulaguntzak eta sariak 2000
4. Becas, subvenciones y premios de Euskadi 2000
5. Euskadiko gazteak 2000
6. Juventud vasca 2000
7. EAEko II. Gazte Plana 2002-2005
8. II Plan Joven de la CAV 2002-2005
9. EAEko Gazte-Elkartegintzaren liburu zuria 2003
10. Libro blanco del asociacionismo juvenil de la CAPV 2003
11. Gazte planak eta programak programatzeko eta balioztatzeko eskuliburua
12. Manual de programación y evaluación de planes y programas de juventud

---

Argitaraldia: 1.a, 2004ko azaroa

Ale-kopurua: 3.000

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila

Internet: [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Fotokonposaketa: Composiciones Rali, S.A.  
Particular de Costa, 8-10 - 7ª - 48010 Bilbao

Inprimaketa: Estudios Gráficos Zure, S.A.  
Carretera Lutxana-Asua, 24 A - Erandio-Goikoa (Bizkaia)

ISBN: 84-457-2155-0

L.G.: BI-2713-04

# AURKIBIDEA

Aurkezpena .....	7
Sarrera .....	11

## LEHENENGO ATALA: PLANGINTZA EGITEA ETA PROGRAMATZEA

1. Kontzeptuak eta metodologia orokorra .....	15
1.1. Egoeraren diagnostikoa .....	15
1.1.1. Beharrak eta arazoak identifikatzea .....	16
1.1.2. Etorkizuneko egoerari buruzko pronostikoa .....	19
1.1.3. Baliabideak balioztatzea .....	19
1.1.4. Lehentasunak zehaztea .....	19
1.2. Plana edo programa diseinatzea edo egitea .....	20
1.2.1. Planaren beharra arrazoitzea .....	20
1.2.2. Teoria ereduaren deskribapena .....	20
1.2.3. Populazioaren deskribapena .....	21
1.2.4. Helburuak zehaztea .....	21
1.2.5. Jardueren deskribapena .....	22
1.2.6. Aurrekontua zehaztea .....	22
1.2.7. Kronograma ezartzea .....	23
1.2.8. Balioztatze sistema aurreikustea .....	23
2. Gazte Plana programatzeko eredia .....	25
2.1. Herri administrazioetako erakundeek edo sailek gazteriaren alorrean egiten duten politika deskribatzen duen agiria .....	25
2.1.1. Teoria esparrua .....	27
2.1.2. Erantzukizuna ematea .....	28
2.1.3. Arazoak eta beharrak antzematea .....	28
2.1.4. Helburuak .....	32
2.1.5. Proiektuak .....	33
2.1.6. Indarraldia .....	34
2.1.7. Balioztatze sistema .....	34

2.2. Gazte Plana osatzen duten proiektuak .....	34
2.2.1. Gazte Planean proiektuak sartzeko irizpideak .....	34
2.2.2. Proiektuak zehaztea .....	36

BIGARREN ATALA:  
BALIOZTATZEA

1. Kontzeptuak eta metodologia orokorra .....	43
1.1. Planaren egitura balioztatzea .....	45
1.1.1. Egoeraren diagnostikoa balioztatzea .....	45
1.1.2. Diseinua balioztatzea .....	45
1.2. Prozesua balioztatzea .....	46
1.2.1. Jarraipena edo monitorizazioa .....	47
1.2.2. Tarteko balioztapena .....	48
1.3. Emaitzak eta eragina balioztatzea .....	49
1.3.1. Emaitzak balioztatzea .....	49
1.3.2. Eragina balioztatzea .....	50
1.3.3. Ondorioak balioztatzeko ereduak (emaitzak edo eragina) .....	50
2. Gazte Plana balioztatzeko eredia .....	53
2.1. Gazte Planaren egitura balioztatzea .....	54
2.1.1. Diagnostikoa balioztatzea .....	54
2.1.2. Planaren diseinua eta balioztagarritasuna balioztatzea .....	55
2.2. Jarraipena eta tarteko balioztapenak .....	56
2.2.1. Proiektuen jarraipena eta balioztapena .....	57
2.2.2. Ekintzen eta eskuhartze lerroen jarraipena eta balioztapena .....	57
2.2.3. Planaren jarraipen eta balioztapen orokorra .....	64
2.2.4. II. Gazte Planeko ekintzen jarraipen eta balioztapen faseen laburpena .....	64
2.3. Emaitzak eta eragina balioztatzea .....	65
2.3.1. Emaitzak balioztatzea .....	65
2.3.2. Eragina balioztatzea .....	66
I. ERANSKINA: II. Gazte plana balioztatzeko proposatu diren adierazleak .....	69
II. ERANSKINA: II. Gazte planeko arduradunei zuzendutako galdera sorta .....	113

## AURKEZPENA

ESKULIBURU hau egin dugu gazte politikarekin zuzeneko edo zeharkako erlazioa duten langileei programatzeko eta balioztatzeko irizpideak eta eredu bateratua eskaintzearen.

Gazteen belaunaldiak eragozpen handiak ditu gizartean benetako protagonismoa hartzeko, eta erakundeak arazo horren kontzientzia politikoa hartuz joan diren neurrian, ikuspegia ere aldatuz joan da; aisia eta zerbitzuak eskaintzea ezin daiteke izan gazteen egoe-rari eman dakioken erantzun bakarra.

Beraz enplegu, hezkuntza, etxebizitza, osasun eta kulturaren esparruetan gazteek dituzten arazo larrienei erantzutearren gazteria politika integrala ezartzeak dakar, gazte planak izeneko bidez, geroz eta erakunde eta gizarte-eragile gehiago inplikatzeko.

Hori dela eta, gogorarazi behar dut EAEko Gazte Plana integrala eta erakundeen artekoa dela, eta ateak zabalik dituela gizarteak parte har dezan; diagnostiko eta esku-hartzeko esparru bateratua eskaintzen du, eta helburuak eta esku-hartzeko neurriak ezartzen ditu. Plan estrategikoa da, eta, ondorioz, ez da esku-hartzeak batzea soilik, eta, halaber, ez ditu gazteria politikaren alorreko esku-hartzeak agortzen.

Tresna gisa, II. Gazte Planak lau urteko iraupena du (2002-2005), eta biltzen ditu Euskal Administrazioek, gizarte-eragileekin eta gazteekin batera, gazteriaren alorrean hartu dituzten konpromisoak eta ezarri dituzten lehentasunak bi gizarte-arazo motari erantzuteko: batetik, gazteriak gizarteratzeko esparruetan dituzten arazo espezifikoari erantzun estrukturala emateko; bestetik, gazteen emantzipazio osoaren bidez, berrikuntza hedatzeko herrialdeko arlo guztietara, bai ekonomiara, bai gizarte gaitetara, bai kulturara eta bai politikara ere.

Azpimarratu behar da II. Gazte Planaren erronka direla udalek bere egitea, eta, bestalde, gizarte-eragileek eta gazteek berek parte hartzea bai Plana egiten, eta, batez ere, Pla-

naren inplementazioan, jarraipenean eta balioztapenean. Horretarako, dagozkion metodologiak ezarri dira, eta arlo bakoitzari bide eta baliabide egokiak zuzkitu zaizkio.

Gazte Planaren koordinazio, sustapen eta garapenari dagokionez, arduradun nagusia da Zuzendaritza Batzordea, ekainaren 2ko 239/1999 Dekretuaren bidez, organo kolegiatu goren gisa sortu zena, eta erakundeen ordezkariak dituena. Urtero onartzen du ekintzen programazioa, bai eta horren jarraipena eragin ere; Gazte Planaren Idazkaritza ere badu, eta zeregin hori dagokio Eusko Jaurlaritzaren Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzari.

Gazteria Politikak bultzatzeko tresna nagusietariko beste bat da Gazteriaren Euskal Behatokia. Observatorio Vasco de la Juventud/Gazteriaren Euskal Behatokia sortu zen, 1999ko abenduaren Sailburuaren aginduz, "EAEko Gazte Planeko ikerketak, informazio-lanak eta dokumentazio-lanak egiteko, Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzaren zerbitzu espezifiko" gisa.

EAEko Gazte Planak, Planaren Kudeaketa Antolamenduaren atalean, Gazteriaren Euskal Behatokiari ematen dio hainbat iturritako informazioa integratzeko eta informazio hori erakundeen eta euskal gizartearen esku jartzeko agindua. Hala bada, tresna garrantzitsua da gazteen mundua ezagutzeko eta balioztatzeko, eta, beraz, Administrazio publikoek, oro har, egindako esku-hartzeen eragina eta ondorioak balioztatzeko ere bai.

EAEko 1999-2001 Gazte Planaren programazioa, jarraipena eta balioztapenaren espezializatik abiatuta, EAEko 2002-2005 II. Gazte Planak ezartzen du, planaren ezaugarriak zehazten dituen kapituluaren 1.3.4 lerroaldean, EAEko Gazte Planaren beraren balioztapen metodologia orokorra.

Metodologia hori aintzat hartuta, EAEko Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordeak osagarri berri bat gehitu du: "programazio eta balioztapen deszentralizatua". Horren arabera, erakundeek era deszentralizatuan egingo dute ekintzen programazioa eta balioztapena, eta, ondoren, Gazte Planaren idazkaritzari eman beharko diote egiten ari diren gazteria politika integralei buruzko txostena.

Erakundeetako, planetako eta gazteei zuzendutako ekintzetako arduradunei lana erraztearren, honako ESKULIBURU hau argitaratu dugu; SIIS-ek (Dokumentazio eta ikerketa zentroa- Eguía-Careaga Fundazioa) egin zuen, Gazte Planaren Idazkaritzak hala eskatuta, eta Batzorde Teknikoak aztertu eta oniritzia eman ondoren, Zuzendaritza Batzordeak onartu egin zuen.

Horrela, bada, programazio deszentralizatuaren bidez, erakundeen sailek edo arloek urtero hartutako konpromisoak biltzen dira agiri batean; era berean, agiri horretan zehaztuko dira ekintza bakoitzari dagozkion helburuak, aurrekontu doitua egokituko zaio eta balioztapenerako adierazle homogeenak erabiliko dira. Agiria onartu beharko du erakunde bakoitzean sortutako dagokion sail arteko batzordeak.

Beste alde batetik, balioztapenaren deszentralizazioa azalduko da, urtero, Erakunde bakoitzak, ekitaldian hitzartutako ekintzak direla-eta, egingo duen Gazte Planaren jarraipen Txostenean. Txosten hori erakundeak berak egingo du, honako ESKULIBURU honetan

aurkeztu dugun eredia oinarri hartuta, eta dagokion sail arteko batzordeak eman beharko dio oniritzia.

Azkenik, jarraipen txosten guztiak kontuan hartu ondoren, Gazte Planaren Idazkaritzak urteko jarraipen Batzordea egingo du; ondoren, Eusko Legebiltzarraren Emakume eta Gazteria Batzordera igorri beharko du.

Nahiko genuke honako argitalpen hau lagungarri izatea Euskadin zeharkako gazteria politikak bultzatzen dihardugunontzat.

MIREN AZKARATE  
Kultura sailburua eta  
EAEko Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordeko lehendakaria



## SARRERA

Eskuliburu hau bi ataletan dago bereizita: lehenengo atala programazioari buruzkoa da, eta, bigarrena, balioztapenari buruzkoa.

Lehenengo atalak, plangintza egiteko eta programatzeko prozesuari dagokionak, bi azpiatal handi ditu; lehenengoan, plangintza egin aurretiko egoeraren diagnostikoa egin ahal izateko prozedurei buruzko azalpen teorikoak ekarri ditugu, eta adierazi dugu plan edo programa batek zein osagai behar duen.

Bigarren azpiatala praktikoagoa da, gazteentzako plan eta programak egiteko programazio metodoei buruzkoa, hain zuzen. Bigarren atal hau ere bi azpiataletan dago banatuta: lehenengoa gazte politikari buruzko erakundeen dokumentu bati dagokio, eta, bigarrena, Gazte Plana osatzen duten proiektuen programazio fitxak betetzeari buruzkoa.

Eskuliburuaren bigarren ataletan balioztapena aztertu dugu. Atal hau ere bi azpiataletan bereizi dugu. Lehenengoan, plan baten egitura, planaren ezarpen prozesua eta ondorioen eragina balioztatzeko balioztapen metodo eta teknika erabilienak azaldu ditugu. Unean uneko beharren arabera, edozein plan edo programari aplikatu lezkieke, planaren zati bati edo plan osoari ere bai. Hori dela eta, esan behar dugu balioztapen osoa dela plana egiteko prozesua, buruztapena eta ondorioak balioztatzen dituenak, baina azterketa horiek eskatzen duen ahalegina ez da beti errentagarria izaten. Hala bada, plana ezartzeko ardura duen taldeak erabaki beharko du zein alderdi lehenetsi behar den.

Bigarren azpiatalean proposatu dugu gazte plan eta programak balioztatzeko ereduak, balioztapen fase guztiei aplikatu dakizkiekeen argibideak dakartzana: egitura balioztatzea, prozesua, emaitzak eta eragina. Edonola ere, kontuan hartu behar da eredu irekia dela, hau da, prozedurak eta adierazleak gehitu edo alda daitezke, bai emaitzei bai ondorioei buruzkoak, betiere azterketa hobetuko dutela irizten bazaio.

**LEHENENGO ATALA**

**Plangintza egitea  
eta programatzea**

## 1. KONTZEPTUAK ETA METODOLOGIA OROKORRA

Plangintza da prozesu metodiko bat, azterketaren bidez arazoak antzematen dituen, arazoak berak ase gabe dituen beharrak asetzearen, benetan egin daitezkeen helburu errealistak ezartzearen, lehenetasunen ordena ezartzearen, eta arazoan konponbiderako esku-hartze estrategiak proiektatzearen. (Schaefer, 1975).

Hainbat plangintza mota dago, lortu nahi diren helburuak zein diren:

- Plangintza *estrategikoa*: maila honetan erabaki ohi da zein ekintzak duen lehenetasuna, eta, bestalde, etorkizunean hartu beharreko orientabideen artean ere ea zein lehenetsi behar den; erabaki garrantzitsuen plangintza da hau, ondorioak epe luzean izango dituen, alegia.
- Plangintza *taktikoa edo egiturazkoa*, helburu orokor eta espezifikoei dagokiena: plangintza horren helburua da jarduerak eta baliabideak egituratzea eta programatzea, aurrez ezarritako xedeak lortzearen. Etapa honen ondorioa izan ohi da plana, programa edo proiektua (luzeraren arabera, hau da, hartzen duen xede kopuruaren arabera).
- Plangintza *operatiboa*. Programa abian jartzeari buruzkoa da: jardueren garapena, egin beharrekoen egutegia eta baliabideen kudeaketa.

Programazio eta plangintza kontzeptuak berdintsuak dira; programazioa plangintza-aren luzapena da, espezifikoa eta oinarrituago ekintzetan.

Plangintza egiterakoan edo programatzerakoan, bi fase izan ohi dira: batetik, egoeraren diagnostikoa, eta, bestetik, planaren edo programaren diseinua. Behin programa egin ondoren, prozesuak bere bideari jarraitzen dio: esku-hartzeak abian jartzea edo ezartzea, aztertzea emaitzak eta horiek zein eragin duten gizarte errealtatean; eta, azkenik, azterketaren ondorioak zein diren, esku-hartzeak berriro programatzea.

Ondoren deskribatuko ditugu, gaingiroki, plangintza-aren eta programazioaren etapak.

### 1.1. Egoeraren diagnostikoa

Gizarte esku-hartzearen prozesuko fase funtsezkoenetako bat da diagnostikoa; printzipio bat du oinarri, hain zuzen, eraginkortasunez jokatu behar bada, jakin egin behar da au-

rretik. Gizarte diagnostikoaren helburu orokorra da halako edo bestelako ekintzak programatzeko balioko duen informazioa eskaintzea. Zer egin behar den (plana, programa edo proiektua, edo jarduerak egitea), informazio zabalagoa edo murriztagoa izango da.

Horrez gain, abiapuntuko egoera zein den ere ematen digu diagnostikoak. Egoera hori izango da helburu dugun egoeraren erreferentzia puntua. Horregatik, planaren aplikazioa bukatu ondoren oso erabilgarria da emaitzak eta eragina balioztatzerakoan.

Ondo egindako diagnostikoa da honako funtzio edo baldintzak betetzen dituen:

1. Arlo jakin batean dauden arazo edo beharren berri ematen du, eta arazo horien zergatiak eta ondorioak aztertzen ditu.
2. Etorkizunari begira, joerak balioztatzen ditu.
3. Eskura dauden baliabideak aztertzen ditu.
4. Esku hartzeko lehentasunak ezartzen ditu.

Beharrak zein diren balioztatzeak eta lehentasunak zein diren ezartzeak ekarriko du erabaki behar izatea lortu beharreko helburuak zein diren, zein ekintza jarri behar den abian, zein baliabide aplikatu; azken buruan, programa halakoa edo bestelakoa izatea ekarriko du.

### 1.1.1. *Beharrak eta arazoak identifikatzea*

Planean, baliabide edo parte-hartze gisa azalduko dira bai beharrak eta bai arazoak ere; hala ere, aztertu behar den gizarte errealitatea hobeto ulertzeko, komeni da bereiztea arazoa eta beharra.

Gizabanakoak edo taldeak hutsunea duen edo urria den egoerari esaten diote arazo. Testuinguru jakin batean normaltzat hartzen denarekin alderatuta du hutsunea edo urritasuna. Horren adibide dira pobrezia edo analfabetismoa.

Beharrak aldea edo desbideratzea adierazi nahi du; adituek ezin hobetzat jotzen dutenaren eta egoera errealaren edo oraingoaren arteko aldea edo desbideratzea, alegia. Beraz, beharrak berak adierazten du identifikatutako arazoa konpontzeko zer behar den; horren adibide dira, esaterako, diru prestazioak edo prestakuntza programak.

Komeni da azpimarratzea balitekeela arazorik ez den egoera batean beharrizanak izatea; hori gertatzen da, esaterako, aurea hartzeko, sustatzeko edo babesteko esparruetan. Edonola ere, beharrak egoera erlatiboa adierazten du, eta nork interpretatzen duen, halakoa izango da definizioa. Horri dagokionez, Bradshaw-k egindako beharraren taxonomiak erakusten du nola defini daitekeen beharra ikuspuntuaren arabera. Taxonomia horrek lau taldetan sailkatzen du beharra:

- Arauen beharra: adituak, profesionalak edo administratzaileak zehazten du, arau desiragarri edo ezin hobe baten arabera.
- Nabaritzen den beharra, biztanleek nabaritzen dute zein arazo duten eta zein zerbitzu nahi duten.

- Adierazten den beharra; zerbitzuak edo prestazioak eskatzea da, alegia, zerbitzuak bilatzen bukatzen duen nabaritutako beharra.
- Konparazio beharra; pertsona edo talde batek duen beharra da, halako edo bestelako beharra identifikatu zaion beste pertsona edo talde baten ezaugarri berdinak dituelako.

Erabiltzailearen, profesionalaren edo estatistika datuetan baino oinarritzen ez den beharren azterketa batek baliteke egoeraren ikuspegi partziala ematea. Horrexegatik, kome-ni da beharrak aztertzea hainbat ikuspuntutatik.

Arazoak eta beharrak identifikatzeko metodoak eta prozedurak honako hiru hauek dira:

- a) Adierazleak erabiltzea.
- b) Inkestak egitea.
- c) Adostasuna bilatzea.

Metodo horiek guztiek balio dute aztertu beharreko gizarte errealitateari buruzko informazioa eta datuak biltzeko. Objektiboak izan daitezke, ikus daitezkeen gertaerei bada-gozkie, edo, bestela, subjektiboak, pertsonen gai baten inguruan nabaritzen dutena isla-tzen badute. Gertaera bera defini daiteke datu objektiboen zein subjektiboen bidez, eta, berez, elkarren osagarritzat hartu beharko lirateke bi metodo horiek.

#### a) *Adierazleak erabiltzea*

Adierazleak dira gizarte egoera islatzen duten aldagaiak eta zehazten dute zein al-daketa gertatu den programa bat aplikatzerakoan. Balioztapenaren fase guztietan era-bil daitezke, beharrak, baliabideak, ekintzak, emaitzak eta eragina balioztatzekeo tresna baitira.

Beharrak aztertzeko alorrean, adierazleak erabili ohi dira batez ere arazoeke, lehenta-sunek eta ekintzen helburu diren taldeek zein garrantzi duten zehazteko.

Adierazle on baten ezaugarriak dira, adibidez, *baliotasuna* (neur dezala neurtu behar-ko lukeena), *fidagarritasuna* edo *objektibotasuna* (emaitza berdina izan dezala edonork, edonoiz eta egoera berdintsuetan erabilia) eta nolako *argitasunez* eta *zehaztasunez* dago-en definituta.

Adierazleei zenbakizko balioa eman lekieke (ehunekoa, batez bestekoa, heina, zen-baki absolutua), edo, bestela, bai/ez sailkapena. Zenbaitetan, adierazle kuantitatiboak alderatu ohi dira sarritan erabilitako erreferentzia balioekin (esaterako, langabezia tasa edo ezintasunaren iraupena); beste zenbaitetan, berriz, oso erabilgarriak dira aurreko etapa batzuekin edo beste testuinguru batzuetako antzeko egoerekin aldera-tzeko.

Ez du emaitza onik ekartzen informazioa oso handia biltzeak; hobe da egoeraren eza-u-garri funtsezkoetan oinarritutako adierazle erabilgarriak aukeratzea, eta ahal izanez gero, hainbat herri alderatzeko modukoak izatea.

Horrez gain, badira azterketaren helburuetatik kanpo dauden zenbait faktore eragina izan dezaketenak adierazleak aukeratzerakoan, adibidez, adierazlea eratzeko behar diren datuak eskuragarriak diren edo ez, balioztapenari dagokion denbora, edo azterketa egiteko eskura dauden diru baliabideak.

b) *Inkestak egitea*

Inkestaren zeregina da azterketaren helburu den populazioari buruzko estatistika berriak sortzea. Nabaritzen diren beharrak zein diren jakiteko iturririk onena dira, baina beharren azterketa egiteko metodo guztietatik garestiena ere bai.

Hori dela eta, komeni da, ahal den neurrian, baliatzea bai aztertu nahi dugun populazioari buruzko datuak dituzten azterketa soziologikoen datuak, eta bai gazteei edo populazio osoari sistematikoki egiten zaizkien inkestak; azken horien kasuan, interesatzen zaizkigun adin taldeko datuak erabiliko ditugu.

c) *Adostasuna bilatzea*

Metodo honen oinarria da gizarte diagnostikoa egiteko nahikoa dela komunitatea eta bere arazoak ondo ezagutzen dituen pertsona talde batean adostasuna egotea. Horretarako, pertsona horiek elkartu, eta eztabaidaren bidez, populazioaren beharrei buruzko adostasuna lortu behar dute.

Honakoak dira metodo nagusiak:

- *Berriemaile funtsezkoen bidezko prozedura.* Komunitatean bizi dira edo lan egiten dute, eta ondo ezagutzen dute komunitatearen errealitatea. Banan-banan inkestak egin behar zaizkie, eta partaideek adierazitako ideiak bat datoze-la ikusten denean, adostasuna dagoela iritziko zaio.
- *Delphi teknika.* Galdera sorta batzuk bidali behar zaizkie zenbait berriemaile funtsezko edo adituri; galdera sortak eratuko dira aurreko galdera sortei emandako erantzunen arabera. Prozesua bukatuko da adostasuna dagoenean edo nahikoa informazio jasotakoan.
- *Talde nominalaren teknika* oinarritzen da, lehenengo, norbanako hausnarketa egin ondoren ideiak sortu et garatzean, eta, bigarren, lehenetsunak adostasunez ezartzean.
- *Eztabaida taldeak.* Planean edo programan esku hartzen dutenak biltzen dira, eta kontrako iritziak bateratzearen, eztabaida eragiten da.
- *Brainstorming.* Aztergaiari buruz jakin edo gai horretan eskarmentua duen pertsona talde bat elkartu, eta, inolako balioztapenik egin gabe, eskatzen zaie ahalik eta ideia gehien eman dezaten.
- *Komunitate foroa.* Batzar irekia da, komunitate jakin bateko guztientzat, aztergaiari buruzko ahalik eta iritzi gehien plazaratu dezaten.
- *Komunitatearen iritzia.* Metodo honetan konbinatu egiten elkarrizketak, berriemaile funtsezkoak, adierazleen bidezko datu bilketa eta beharrik handiena antzeman zaien taldeetako komunitate foroa, eta jasotako informazio guztia biltzen da.

### 1.1.2. Etorkizuneko egoerari buruzko pronostikoa

Pronostikoak aukera ematen du jakiteko etorkizuna nolakoa izango den egoeraren parametroak bere horretan jarraitu edo aldatuz gero. Horretarako, oraingo joerak eta izan litezkeen aldaketak aztertzen dira. Bi erataria egin daiteke azterketa:

- Proiekzio baten bidez. Iraganeko eta oraingo estrapolazioa egin etorkizunean, bilakaera indizeak kontuan hartuta.
- Aurreikuspena eginez. Halakoetan proiekzioa zuzendu egiten da, azterketan aldaketa faktoreak ere sartzen direlako.

Pronostikoa oso erabilgarria da lehenetsunari edo baliabideak emateari buruzko erabakietan, betiere planaren aplikazio epealdian aldaketa handiak aurreikusten badira.

### 1.1.3. Baliabideak balioztatzea

Diagnostiko fasean komeni da deskribatzea helburu izango den populazioari zuzendutako programak, zerbitzuak eta prestazioak. Bestalde, beharrezkoa da zehaztea horiek guztiak dituzten hutsuneak, gabeziak eta arazoak, hartara, plana diseinatzerakoan, ekintzak definitu eta baliabideak kalkulatu ahal izango dira.

### 1.1.4. Lehentasunak zehaztea

Erabakiak hartzeko prozesu bat da, eta helburua du ordena jakin bat ezartzea; ordena horren arabera aseko dira beharrak eta konponduko dira antzemandako arazoak.

Neurri handiko plan, programa edo proiektuetan, lehentasunak ezartzea ez da interbenitu beharreko arazoak (ekintza lehentasunak) aukeratzea soil-soilik; horiek aukeratu ez ezik, adierazi egin behar da zein arazoren jatorri eta konponbide ezagutzen dugun ondoren (ikerketa lehentasunak).

Honakoak dira lehentasunak ezartzeko erabili ohi diren irizpideak: arazoaren garrantzia, planak edo programak nolako gaitasuna duen arazoa konpontzeko, eta ekintza egin ahal izatea.

- Arazoaren *garrantziaz* ari garenean, esan nahi dugu zein hedadura duen, zein larria den, bizitza kalitatean duen eragina, zein joera duen denboran,...
- *Planaren gaitasunak*, berriz, esan nahi du zein aukera dagoen ekintza eraginkorrek egin ahal izateko; alegia, ea planak konpontzen dituen arazoak eskura dituen baliabideak erabilia.
- *Egingarritasunak* arrakastarekin du zerikusia; planak, ezartzean, arrakasta lortzea, hau da onartua izatea. Zenbait faktoreren esku egon ohi da, eta faktore horiek honako dimentsio hauei dagozkie:
  - Legezko egingarritasuna: Ekintza bat dator inplikaturako legediekin?
  - Egingarritasun politikoa: Zein jarrera erakusten dute plana edo programa ezartzeko esku hartzen duten erakunde politikoek?

- Egingarritasun ekonomikoa: Beste programa batzuekin alderatuta, zein da honen kostua? Balioztatu al dira bestelako metodo batzuk?
- Erakunde egingarritasuna: Planaren erantzule den erakundeak ba al du gaitasuna planaren garapenean liderra izateko? Ba al da koordinaziorik esku hartzen duten erakundeekin?
- Egingarritasun soziokulturala: Onargarria da herritarrentzat? Hartzen al ditu aintzak komunitate horren balioak eta jarrerak? Ba al du zerikusirik herritarrek sentitzen duten beharrekin?
- Egingarritasun etikoa: Ekintzak izan al dezake inork nahi ez duen ondorio-rik? Arrisku handiko taldeetan bakarrik interbenitu behar da?

Era berean, badago lehentasunak ezartzea adituei galdetuta ea zein diren, euren ustez, lehenetsi beharreko arazoak.

Arazoaren garrantzia nolakoa den edo arazoari nola ekin jakin ezean, hobe da ekintzak egiten hasi baino ikerketa egiteko proposatzea.

### 1.2. Plana edo programa diseinatzea edo egitea

Plan edo programa batek honako osagarri hauek izan behar ditu:

- Planaren zergatia.
- Oinarrian erabiliko den teoria ereduaren azalpena.
- Populazioa zehaztea.
- Helburuak zehaztea.
- Jarduerak azaltzea.
- Aurrekontua zehaztea.
- Kronograma edo lanak egiteko epeak ezartzea.
- Balioztapen sistema aurreikustea.

#### 1.2.1. Planaren beharra arrazoitzea

Egoeraren diagnostikoak ekarriko du zenbait esparru eta populaziotan interbenitzeko beharra, eta, bestalde, helburuak eta egin beharreko jarduerak zehazten ere lagunduko du. Plana edo programaren oinarria izango da antzemandako arazoak murriztea edo konpontzea.

Programa egokia izango da ondo ezarritako behar jakin batzuei, interbentzioa behar dutenei, erantzuten badie.

#### 1.2.2. Teoria ereduaren deskribapena

Planak printzipioen adierazpena izango du, hurbileko beste eredu batzuekin bat dato-rena, eta printzipio horien arabera garatuko dituen ildoak ere jaso beharko ditu.



Hori dela eta, komeni da gazteei arreta egiteko ereduak eta gazteria politikak zehazten dituzten agiriak aztertzea, oso baliagarriak izan bailitezke planaren ildo nagusiak zein izango diren zehazteko.

### 1.2.3. Populazioaren deskribapena

Plana zuzenduta dagoen populazioari esan ohi zaio, *populazio aztergaia*, *xede populazioa* edo *diana populazioa*. Irizpide baten edo zenbaiten arabera definitu ohi da, adibidez, geografia eremu bat edo adin jakin bat.

Planaren helburu den populazio orokorraren barruan bereiz daitezke interbentzio jakin baten xede izan litezkeen beste zenbait populazio talde.

Populazioaren zati bat arrisku jakin baten mehatxupean dagoenean, adibidez, zainetarik drogak kontsumitzen dutenak, talde horri *arriskupeko populazioa* esan ohi zaio, eta arazo jakin bat edo gaixotasunen bat duenean, berriz, *eragindako populazioa*.

### 1.2.4. Helburuak zehaztea

Helburuak zehaztea da planaren diseinuaren funtsezko zeregina, horrek erakutsiko baitu zenbateraino den plana balioztagarria.

Arazoa antzeman den populazioan edo egoeran lortu nahi diren aldaketak edo emaitzak dira helburuak. Hainbat eratakoak izan daitezke.

Lehenengo eta behin, bereizi egin behar dira *helburuak* eta *jomugak*. Jomugak dira plana abiatzen den egoera idealak, edo epe luzeko emaitzak, baina beti ezin dira erdietsi; arazoaren konponketa edo arazoaren murrizketa gisa agertu ohi da. Adibidez, “langabezia murriztea gazteen artean”.

Bigarrenik, dagokien planifikazio mailaren arabera eta adierazten diren zehaztasunaren arabera, helburuak izan ohi dira *orokorrak*, *tartekoak* eta *espezifikokoak*. Helburu orokorretara iritsi aurretik, erdikoetatik eta espezifikoetatik pasatu behar da. Helburu guztiek katea osatzen dute, orokorretatik espezifikoenetara. Oro har, orokorrak planifikazioaren estrategiari dagozkio, hau da, plan orokorrei, eta espezifikokoak, berriz, planifikazio taktikolari (programak). Helburu orokorra izan daiteke, esaterako, “gazteek enplegua lor dezaten bidea hobetzea”, eta, beste bat, honakoa espezifikoagoa, “gazteei lanbide heziketak eskaintzen dituen aukeren berri ematea”.

Hirugarrenik, beharrezkoa da bereiztea, batetik, *programaren helburuak* (*emaitzei dagozkienak*), eta, bestetik, *helburu instrumentalak* edo *operatiboak*. Lehendabizikoak ezarri ohi dira arazoak eta beharrak oinarritzat hartuta, eta lortu beharreko egoera edo diana populazioan garatu beharreko jokabidearen bidez datoz adierazita; adibidez, aurreko paragrafoko bi adibideak. Helburu instrumentalek, berriz, zerikusia dute planaren edo programaren ezarpenarekin, eta jardueren bidez datoz adierazita, alegia, programaren ondorioak lortzeko abian jarri behar diren jardueren bidez adierazita, esate baterako, “informazio zerbitzuak eta lan aholkularitzako zerbitzuak garatzea”.

Planaren edo programaren helburuak dira balioztapen egokia egiteko erreferentzia nagusia. Planaren aplikazioaren ondorioz lortu nahi den emaitza espezifikoa eta neurgarria islatu behar dute, hartara, plana balioztatzerakoan, lortutako emaitza eta espero zena alde-ratu ahal izango dira.

Ondo formulatutako helburuek honakoak adierazi behar dituzte:

- Egin nahi den *ekintzaren izaera*.
- Planak edo programak helburu duten *esparrua edo populazioa*.
- *Arrakasta lortzeko irizpideak*. Iritsitako populazioarekin izan dezakete zerikusia (ehunekoak edo tasak), ezagupen eta jarreretan interbenitzeak izan duen ondorioarekin, helburua lortzeko gehienezko kostuekin, eta abarrekin.
- Helburua lortzeko *kronologia*, hau da, noiz lortu behar den helburua edo noiz egin beharko den balioztapena edo kontrola; helburu orokorra, tartekoa edo espezifikoa, zer den, hilabeteetako edo urteetako aldea egin daiteke.

Adibide bat jartzearen, ondo formulatutako helburu bat honakoa izan liteke: “hurrengo hiru urteetan %5 murriztea langabezia tasa 20-29 urte bitarteko gizon eta emakumeen artean”.

### 1.2.5. Jardueren deskribapena

Jarduerak adierazten dute zer egin behar den plan, programa edo proiektu batean zehaztutako helburuak (instrumentalak, espezifikoa edo orokorrak) lortzearen. Jarduerak honako irizpide hauek bete behar dituzte:

- *Koherentzia*: aurreikusitakoaren arabera eginez gero, pentsa liteke lortuko direla lortu nahi diren helburuak; egokiena da beste esparru edo populazio batzuetan eraginkorrak izan direla egiaztatu diren jarduerak aukeratzea, baina beti ezin izaten da hori egin.
- *Errealismoa*: badago benetako aukera jarduera horiek egin ahal izateko.

Jardueren espezifikazio maila planifikazio mailaren araberkoa izan ohi da. Programa edo proiektu jakin batzuk direnean, honakoak zehaztu ohi dira:

- Zer egin behar den (lanaren izaera, kantitatea eta kalitatea).
- Noren ardura den lan hori egitea.
- Noiz egin behar den, eta bukatzeko epeak adierazi behar dira.
- Lana non egin behar den.
- Nola egin behar den.

Planifikazio estrategikoari (plan orokorrak) dagokionez, gutxienez honakoak adierazi behar dira: ekintzaren izaera eta plana egiteko pertsona edo erakunde arduraduna nor den.

### 1.2.6. Aurrekontua zehaztea

Plan batek jasota eduki behar du lortu nahi diren helburuak lortzearen aurreikusitako tresnen kostua zein izango den.

Hala bada, beharrezkoa da antzemandako beharrak betetzeko nolako baliabideak behar diren aztertzea. Horregatik, garrantzitsua da honakoak zehaztea:

- Arazoa ea nork konpondu dezakeen: gizabanakoak berak, familiak, Administrazioak,...
- Ea zein laguntza mota behar duen, hau da, ea aholkularitza teknikoa behar duen, materialez hornitzea, zerbitzuren bat antolatzea,...
- Ea baliabideak non lor daitezkeen, eta zehaztu behar da ea aurretik badauden baliabideak ote diren edo ea sortu behar ote diren.

Komeni da baliabideen inbentarioa egitea, bai eskura dauden baliabideena, eta bai plana garatzeko behar izango direnena ere.

### 1.2.7. *Kronograma ezartzea*

Zehaztutako helburuak lortzeko behar diren epeak ezarri behar dira. Adibidez, nahikoa litzateke alderdi espezifiko baten berri emateko edo horretan trebatzeko zortzi orduko hitzaldia, baina ez litzateke nahikoa izango drogamenpekotasunari aurrea hartzeko programa bateko kanpo inguruneko bitartekariak edo langileak trebatzeko.

### 1.2.8. *Balioztatze sistema aurreikustea*

Planak edo programak jaso behar du atal bat, zeinean deskribatuko baita erabiliko den balioztatze sistema:

- Zein balioztatze mota egitea proposatzen den: prozesuzkoa, emaitzen balioztatzea, ekonomikoa edo bestelakoa.
- Erabiliko diren tresnak, metodoak eta baliabideak.
- Zein unetan jasoko den informazioa, nor arduratuko den datuak biltzeaz, eta zein talderi aplikatuko zaizkion tresnak.

## 2. GAZTE PLANA PROGRAMATZEKO EREDUA

EAEko Gazte Planak zenbait eskuhartze lerro eta ekintza ezartzen ditu, gazteen arazotan lehentasuna dutenei erantzutearren. Planean proposatutako ekintza asko plana ezarri aurretik ere egiten ziren; planaren bidez, baina, helburua da gazteei zuzendutako ekintzak, lehentasuna dutenak behinik behin, biltzea, eta, horren ondorioz, egiten diren ekintza guztiei koherentzia emango zaie eta garatzen lagundu ere bai.

Hala ere, gazteria politika, bere esanahirik zabalenean, Gazte Planean jasotako ekintzetatik haratago doa; izan ere, gazteen bizi baldintzetan, oraingoetan eta etorkizunekoetan, eragina duten esku-hartze guztiak biltzen ditu. Politika horiek ikusi eta koordinatu ahal izateko erakunde guztietan, komeni da idatziz sistematizatzea.

Programazioari buruzko atal honetan, hurrengo lerroetan eskainiko dugu, lehenengo eta behin, hainbat orientabide, gazteentzako ekintzak egiten dituzten Administrazio publiko erakunde edo sailek aintzat har ditzaten beren gazteria politika azaltzen duten txostenak idazterakoan; bigarren Gazte Plana osatzen duten proiektuak programatzeko argibideak emango ditugu.

### 2.1. Herri administrazioetako erakundeek edo sailek gazteriaren alorrean egiten duten politika deskribatzen duen agiria

Gazteria-politikaren diseinua estrategiako plangintza baten barruan kokatuta dago, hau da, erakunde batek lehentasunezko beharrei loturik eta oinarritzko printzipioetan errotuta dauden epe ertain edo epe luzeko (3-6 urte) helburu orokorrak ezartzen dituen etapan.

Horrela bada, oso garrantzitsua da gazteei zuzendutako ekintzak egiten dituzten Herri Administrazioetako sailek deskriba dezaten agiri batean beren gazteria politika, eta idatzi hori izan dadin beren eskumen esparruan egiten dituzten esku-hartzeen erreferentzia gunea. Horrez gain, aurrekontu ekitaldi bakoitzean egin behar dituzten esku-hartzeak zehaztu beharko dituzte, eta horietan osatuko dute gazteria politikaren inguruan sail edo erakunde bakoitzak urtero-urtero hartuko duen konpromiso politikoa.

Gazteria-politikaren osagai nagusiak dira oinarritzko printzipioak eta helburu orokorrak; hala ere, horiek guztiak formulatu aurretik, ezinbestekoa da arazoak eta lehentasuna duten beharrak identifikatzea. Lan hori erraztearren, honako koadro honetan adierazi dugu jarraitu beharreko prozedura:

### Gazteria-politika azaltzen duen agiri baten osagaiak

1. Teoria esparrua
  - Esku-hartzeen oinarritzko printzipio orientatzaileak, hausnarketaren bidez eta gazteriaren esparruan lanean diharduten eragile nagusien adostasunaren bidez
2. Erantzukizuna ematea
  - Gazteria alorreko arduradun politikoak
  - Gazteriaren esparruko esku-hartzeak kudeatzeko arduradunak
3. Arazoak eta beharrak antzematea
  - Gazteen beharrak aztertzea
    - Adierazleak erabiltzea
    - Adostasuna bilatzea
  - Baliabideak aztertzea
    - Gazteei zuzendutako baliabideak
    - Koordinatzeko baliabideak eta tresnak
    - Gazteen egoeraren ikerketarekin zerikusia duten baliabideak
    - Parte hartzeko mekanismoak
    - Prestakuntzarako eta aholkularitzarako baliabideak
    - Egon badauden baliabideen berri emateko bideak
    - Arau tresnak
  - Lehentasunak ezartzea
4. Gazteria politikaren helburuak formulatzea
  - Helburu orokorrak edo azken helburuak, gazteei zuzendutakoak
  - Helburu instrumentalak edo tartekoak, azken helburuak lortzearren baliabideak hobetzera zuzenduak (ekipamendua, kudeaketa baldintzak, koordinazioa, parte hartzea,...)
  - Populazio hartzailea: gazteria, oro har, talde espezifikoak, gazteria alorreko profesional eta teknikariak,...
5. Helburuak lortzearren egin beharreko programak edo ekintzak
  - Gazte Planean jasota dauden ekintzak
  - Bestelako ekintzak
6. Gazteria Politikaren indarraldia
  - Helburuak lortzeko epea
  - Dagokion erakundeak unean uneko urtean ekintzak egiteko hartzen duen konpromisoa
7. Gazteria politikaren jarraipena eta balioztapena egiteko sistema

### 2.1.1. Teoria esparrua

Programa edo politika publiko guztien esku-hartzeen oinarrian daude balio, printzipio edo sustrai teoriko batzuk, zeinak ekartzen baitute, helburuak lortu ahal izateko, lehentasun batzuk ezartzea eta halako edo bestelako baliabideak aukeratzea. Lerrootako atal honetan saiatuko gara erakunde eta sailen, bereziki gazteriaren arloan dihardutenen, esku-hartzeentzako orientabide printzipioak zehazten. Gazteriaren esparruan ari diren eragile nagusien hausnarketak eta adostasunak ekarriko dute oinarritzko printzipioak ezartzea.

Behin oinarritzko printzipio horiek zehaztuta, kontuan hartu beharko dira edozein erakundek, sailek edo arlok garatzen dituen proiektuetan. Hala bada, esaterako, printzipio-tzat hartzen bada gazteek parte hartzea eurei eragiten dieten esku-hartzeen lanketan, jarraipenean eta balioztapenean, proiektu guztiek eduki beharko dute parte hartzeko mekanismoak.

Erakunde, sail edo arloen esku-hartzeak orientatzeko teoria esparrua definitzerakoan, II. Gazte Plana bera har daiteke erreferentziatzat; izan ere, planak euskal gazteriaren egoeraren diagnostiko globala eta arlokakoa egiten du. Orientabide gisa, aintzat har litezke gazteria politikek oinarritzat hartu behar dituzten printzipio nagusiak:

- Gaztaroa luzatzeak nahitaez dakar neurriak hartzea gazteen emantzipazioa eragozten duten oztipoak desagerrarazteko.
- Gazteriaren gizarte errealitateak behar-beharrezkoak ditu ohiko ikuspegiak, aisialdiari begira daudenak, gainditzeko politika globalak.
- Behar-beharrezkoa da gazteei eragiten dieten politikak garatzen dituzten sailen eta erakundeen arteko lankidetzeta eta koordinazioa, eta bai administrazioaren eta gazte alorrean diharduten eragileen artekoa ere.
- Bestalde, gazteria politikek bultzatu egin behar dute gazteen autonomia; horretarako, gazteen ekimenei eta sormenari, mugigarritasunari, aisialdiari eta abarri bide eman behar diete.
- Erakundeek bultzatu egin behar dute gazteen esku-hartzea, ezinbestekoa baita; ez dago gazteengan eragina izango duen jarduerarik planteatu gazteek parte hartu gabe. Eta parte-hartzea ez da galdetzera mugatu behar; beharrezkoa erabakiak hartzen ere parte har dezaten.

II. Gazte Planari dagokionez, honakoak dira erakundeek egin behar dituzten eskuhartze lerro nagusiak:

- Enplegurako programak bultzatzea eta lan urritasunaren aurkako neurriak ezartzea.
- Gazteei aholkularitza eskaintzea eta laguntzea gizarteratzeko eta lan munduan sartzeko.
- Ikastetxeei aitortzea gizartean betetzen duten tokia, eta horretarako, hainbat baliotan, adibidez, elkartasuna, tolerantzia eta integrazioan, oinarritutako hezkuntza sustatzea.
- Prestakuntza tekniko-profesionalari prestigioa ematea, eta enplegurako prestakuntza bizitza osorako bultzatzea.
- Gazteei etxebizitza lortzeko bidea erraztea, alokairuko etxeak eskainiz eta sustatuz, eta etxebizitza horiek gazteen beharretara egokituz.

- Arriskua dakarten jokabideei aurrea hartzearen, bizitzeko ohitura osasungarriak sustatzea.
- Gazteen gizarte bazterketari aurrea hartzea, eta horretarako gizarte talde ahulenei laguntza ematea, hain zuzen, etorkinei, minusbaliatuei, prestakuntza urriko gazteei, emakumei,...
- Gazteen elkarteak sustatzea, hori baita gizartean parte hartzeko eta hezteko modu egoki bat, eta lan munduan sartzeko eta gizarteratzeko ere bai.
- Aisialdia eta kultura sustatzea, eta horretarako, gazteen ekimenak garatzeko tokiak eta testuinguruak sortu eta bide eman gazteei komunitatearen eta gizartearen bilakaeran esku hartzeko.

Gazteria politika azaltzen duen agiria egiterakoan, dagokion administrazio erakundea Gazte Planaren oinarritzko printzipioei atxiki ahal izango zaio, bere politika ildoarekin bat datozen beste batzuk gehitzeari kalterik egin gabe.

### 2.1.2. Erantzukizuna ematea

Berriaz adierazi beharko da dagokion administrazio erakundeko zein pertsonak hartuko duen gazteriaren arloko ardura politikoa, bai eta kudeaketa arduraduna nor edo norzuk izango diren ere; kudeaketa arduradunen zeregina izango da gazteekin zerikusia duen proiektuak programatzea, ezartzea, horiei jarraipena egitea eta balioztatzea.

### 2.1.3. Arazoak eta beharrak antzematea

Politikak, planak eta proiektuak egiterakoan, ezinbestekoak da, batetik, arazoak eta beharrak antzematea, eta, bestetik, lehenetsiak ezartzea; lortu beharreko helburu eta jomugei, abiarazi behar diren proiektuei eta baliabideak ezartzeari buruzko erabakiak hartzen laguntzen dute.

Bi arazo mota azter daitezke, zein bere aldetik:

- Gazteen beharrak (langabezia, osasun arazoak, eskolara huts egitea, bazterkeria, etxetik alde egiteko arazoak,...); erakunde, sail edo arlo bakoitzaren esku hartzeak horiek murriztea edo konpontzea du helburu, edo, bestela horiei aurrea hartzea;
- Arazo horiek konpontzeko behar diren baliabide edo tresna eza edo disfuntzioak (administrazio koordinaziorik ez, langileen prestakuntzarik ez, aholkularitza teknikorik ez...).

#### 2.1.3.1. Gazteen beharrak aztertzea

Komenigarria da gazteen beharrak hainbat ikuspuntutatik aztertzea: estatistika datuak, gazteen iritzia, gazteen alorrean diharduten profesionalen iritzia, adituen hausnarketak,... Horretarako, lehen mailako iturriak erabil litezke (azterketa jakin bat egiteko *ad hoc* sortutakoak), edo bigarren mailakoak (gazteen esparruarekin zerikusia duen beste erakunde batzuen informazioa).

a) *Adierazleak erabiltzea*

Egoeraren diagnostikoa adierazleen bidez isla daiteke; arestian esan bezala, adierazle horiek aztergaiaren errealitatearen kantitatea edo kalitatea adierazten dute, eta plangintza egiterakoan eta balioztatzerakoan erabili ohi dira. Beharrak aztertzeko, esaterako, balio dute informazioa sistematizatze eta arazoaren garrantzia zehazteko; oro har, erreferentzia diren beste egoera batzuekin alderatuz egin ohi dira (eredutzat hartzen diren hurbileko inguruneak, aurreko egoerak,...).

Hurrengo koadroan dago gazteen errealitateari buruzko azterketetan gehien erabili diren gizarte adierazleak; jakina, erakunde, sail edo arloek beste batzuk ere erabil ditzakete, beren diagnostikoa egiteko egokiagoak iruditzen bazaizkie, behinik behin.

Gizarte adierazleak
<p>A. <i>Demografikoak</i></p> <p>A.1. 15-29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa</p> <p>A.2. 15-29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa, 2010erako aurreikuspena</p> <p>A.3. 15-29 urte bitarteko pertsonen ehunekoa, udalaren eta adin taldeen arabera (5 urteko multzoak)</p> <p>A.4. Ugalkortasun tasa</p> <p>A.5. Ezkontzen edo egitezko bikoteen tasa</p> <p>A.6. 15-29 urte bitarteko familiaburuak dituzten familiak, familia motaren arabera</p>
<p>B. <i>Enplegu arloa</i></p> <p>B.1. Gazteen jarduera tasa, adin eta sexu taldeen arabera</p> <p>B.2. Gazteen langabezia tasa, adin eta sexu taldeen arabera</p> <p>B.3. Gazteen langabezia tasa, udal eta eskualdeen arabera</p> <p>B.4. Gazteen langabeziaren batez besteko iraupena</p> <p>B.5. Lanean diharduten gazteak, lanbidearen, sexuaren eta adin taldearen arabera</p> <p>B.6. Aldi baterako kontratupean lanean diharduten gazteak, adinaren eta sexuaren arabera</p> <p>B.7. Gazteen lan jardunaldia (egun osokoa/zatikakoa), sexuaren eta adin taldeen arabera</p> <p>B.8. Gazteen artean, gizonen eta emakumeen aldea langabezia tasari dagokionez</p> <p>B.9. 15-29 urtekoen ehunekoa, ikasketa mailaren arabera</p> <p>B.10. 15-29 urtekoen ehunekoa, lanbidearen arabera</p> <p>B.11. Ikasten edo prestakuntza programaren batean ari diren 15-29 urtekoen ehunekoa</p> <p>B.12. Ikasten edo prestakuntza programaren batean ari diren 15-29 urteko neska eta mutilen arteko ehunekoaren aldea</p>
<p>C. <i>Egoera ekonomikoa</i></p> <p>C.1. Gazteen diru iturri nagusia</p> <p>C.2. Gazteen lanaren lansariak</p>

.../...



.../...

D. *Hezkuntza eta prestakuntza*

- D.1. Eskolatzeko tasa
- D.2. Ikasleen ehunekoak, adin taldeen arabera
- D.3. Bigarren hezkuntza hasten dutenetatik zenbatek bukatzen duten
- D.4. Bigarren zikloko Lanbide Heziketa hasten dutenetatik zenbatek bukatzen duten
- D.5. Goi-mailako ikasketak hasten dituztenetatik zenbatek bukatzen dituzten
- D.6. Aldi berean lanean eta ikasten diharduten gazteen ehunekoak
- D.7. Euskararen ezagutza gazteen artean
- D.8. Euskararen erabilera gazteen artean

E. *Etxebizitza*

- E.1. Gurasoen etxean bizi diren 20-29 urte bitarteko gazteen ehunekoak
- E.2. Etxetik alde egiteko eragozpenak
- E.3. Gazteak bizi diren etxebizitza mota (jatorrizko etxebizitza, bikotearekin, beste zenbait), adin eta sexu taldeen arabera
- E.4. Etxebizitzaren jabe diren gazteen ehunekoak
- E.5. Alokairuan bizi diren gazteen ehunekoak
- E.6. Babes ofizialeko etxebizitza batean bizi diren gazteen ehunekoak

F. *Osasuna eta gizarte ongizatea*

- F.1. Hilkortasun tasa, sexuaren arabera
- F.2. Trafikoaren ondoriozko hilkortasun tasa, sexuaren arabera
- F.3. Buru-hiltzearen ondoriozko hilkortasun tasa, sexuaren arabera
- F.4. Egunero erretzen dutela adierazten duten gazteen ehunekoak, sexuaren arabera
- F.5. Gutxienez bi aldiz mozkortu direla adierazten duten 15 urteko gazteen ehunekoak
- F.6. Asteburuetan gehiegi edaten dutela adierazten duten gazteen ehunekoak
- F.7. Legez kanpoko drogak hartu dituztela adierazten duten gazteen ehunekoak
- F.8. Legez kanpoko drogak maiz hartzen dituztela adierazten duten gazteen ehunekoak
- F.9. Abortu tasa, adin taldeen arabera
- F.10. Gazteengan GETek duen eragina/iraupena
- F.11. HIESaren eragina/iraupena gazteengan eta kutsatu izanaren arrazoia
- F.12. Elikatzeko jokabidearen asalduren eragina/iraupena gazteengan
- F.13. Buru arazoaren eragina/iraupena gazteengan
- F.14. Neurriak hartu gabe sexu harremanak dituzten gazteen ehunekoak
- F.15. Minusbaliotasunaren iraupena gazteen artean
- F.16. Gazte etorkinen ehunekoak
- F.17. Gazte arau-hausleen ehunekoak
- F.18. Pobrezia edo gizartetik baztertua (Oinarrizko Errenta edo GLE jasotzen dutenak) bizi diren gazteen ehunekoak

.../...

.../...

G. *Aisialdia, kirola eta kultura*

- G.1. Honako jardueran (aste barruan eta asteburuetan) egiten dituzten 15-29 urte bitarteko gazteen ehunekoa: lagunekin elkartu, musika entzun, telebista ikusi, kirolak, liburuak irakurri, egunkariak irakurri, tabernatan ibili, mendira joan, kirol ikuskizunak ikustera joan, erlijio jardueretara joan,...
- G.2. Hainbat erakunde eta elkarte motatan diharduten gazteen ehunekoa, adin eta sexu taldeen arabera
- G.3. Interneten erabilera gazteen artean

H. *Gazteen balioak eta jarrerak*

- H.1. Gazteen kezka nagusiak
- H.2. Enplegua, politika, erakundeak, Euskadiko egoera, indarkeria, pobrezia, zahartzarua, dibortzioa, abortua, eutanasia, homosexualitatea, inmigrazioa eta gaien buruzko iritzia

Adierazle hauek egiteko datu asko bigarren mailako iturrietan daude, adibidez, EUSTATEN estatistiketan, Kontratazio analisietan, Lan Merkatuaren Erroldan, Osasunari buruzko inkestan, Gazteriaren Euskal Behatokiak egiten duen Euskal Gazteria ikerketan, Drogamenpekotasunen Euskal Behatokiaren txostenetan, Etxebizitzaren beharra eta eskaerari buruzko inkestan, Soziolinguistika mapan, Pobrezia eta Gizarte desberdintasunei buruzko inkestan, Euskal Soziometroan, Gazteriaren erretratua inkestan,...

Bestalde, gazte guztien edo talde batzuen alderdi jakin batzuk aztertu nahi izanez gero, beharrezkoa izango da beste azterketa batzuk egitea edo berariazko informazioa bilzteko sistemak sortzea.

b) *Adostasuna bilatzea*

Diagnostikatzeko bide hori baina, adostasuna bilatzeko teknikekin ere konbina daiteke; oro har, adituak edo esparrua ezagutzen duten zenbait lagun bildu, eta arrazoiak eta ondorioak aztertuta, arazoei eta beharrei buruzko eztabaidak eta hausnarketak egitea da prozedura.

Adostasuna bilatzeko metodo nagusiak dira, besteak beste, eztabaida taldeak, Delphi teknika, talde nominalak, *brainstorming* edo “ideia zurrunbiloa”, talde elkarriketak eta komunitate foroa.

2.1.3.2. *Baliabideak aztertzea*

Gazteen beharrak aztertzeaz gain, beharrezkoa da gazteei zeharka edo zuzenean zuzendutako baliabideen egokitzapena balioztatzea.

Horretarako, identifikatu beharko dira erakunde, sail edo arlo bakoitzak gazteei zuzendutako jarduerak garatzeko baliabideak zein diren, eta horien artean jaso beharko dira Gazte Planekoak ez direnak ere. Azterketa errazagoa izan dadin, honako baliabide multzoak aztertzea proposatzen dugu:

1. Gazteei eta gazteen elkarreentzat zuzenean bideratzen diren *giza baliabideak*, *baliabide materialak* eta *baliabide ekonomikoak*: zerbitzuak, ekipamenduak, diru laguntzak... eta ahal den neurrian, zehaztu egin beharko da nolakoak eta zenbat diren baliabide horiek.
2. Egon badauden baliabideak zabaltzeko *hedabideak*, hau da, ea zein tresna dagoen gazteei baliabide horien berri emateko: Internet, publizitatea, eta abar.
3. Beste erakunde, sail edo arlorekiko *lankidetzak* eta *kooperazioak* errazteko tresnak edo baliabideak: partzuergoak, batzordeak, hitzarmenak, itunak, kudeaketa partekatutako sistemak,... eta zehaztu beharko da zein diren inplikaturako erakundeak, bai eta koordinazio mekanismoa zein izango den azaldu ere.
4. Gazteen egoeraren *ikerketarekin* zerikusia duten baliabideak: sistematikoki egiten diren edo egitea aurreikusita dauden inkestak, azterketa soziologikoak, ikerketa monografikoak,..., eta adierazi beharko da noiz egingo diren.
5. Proiektuak egiten eta balioztatzen gazteen *esku-hartzea* bideratzeko mekanismoak: kontseiluak, eztabaida taldeak,...
6. Gazteekin zerikusia duten politikak eta proiektuak planifikatu, garatu eta balioztatzerakoan, langileei *prestakuntza* eta *aholkularitza* eskaintzeko baliabideak: ikastaroak, eskuliburuak, prestakuntza programak edo saioak, izandako esperientziak elkarki azaltzea,... eta zehaztu beharko da zein izango diren aztergaiak eta egutegia.
7. Dagokion administrazio erakundeari gazteriaren alorrean *eskumenak* ezartzen dizkion arau baliabideak.

Baliabideen inbentarioa egin ondoren, egokiak ote diren aztertu beharko da, eta, hala badagokio, aztertu beharko da ea zein hutsune edo disfuntzio duten, eta zehaztu beharko da zein arlotan dagoen hutsunea.

Baliabideak aztertu eta balioztatzerakoan, honako irizpide hauek erabil litezke:

- Nahikotasuna eta kalitatea, hau da, ea nahiko zerbitzu eta profesional diren, ea langileen prestakuntza egokia den, ea ekipamenduak egoera onean dauden,...
- Erabiltzeko erraztasuna; kontzeptu honen baitan biltzen dira geografia, fisikoa edo arkitektonikoa, dirua, ordutegia, eta erabiltzaileek onartzen duten.
- Baliabideen erabilera, eta balioztatu beharko da gehiegi edo gutxiegi erabilita dauden.
- Egokitasuna, hau da, ea eskura dauden baliabideak egokienak diren egin nahi diren esku-hartzeak egiteko edo bestelako tresnarik behar ote den.

Gazteekin zerikusia duten edo baliabide eta tresnei dagozkien arazoak deskribatuta daudela, beharrezkoa da lehentasunak ezartzea, alegia, baliabide gehien edo horiek azkarren behar duten esparruak aukeratzea, geografia guneen, taldeen edo azpiegitura espezifikoen arabera. Lehentasun horiek helburu bilakatuko dira.

#### 2.1.4. Helburuak

Alde batetik, gazteen egoera hobetzeko administrazio arloaren helburu *orokorrak* adierazi beharko dira; helburu horiek lotuta egongo dira gazteen beharrei buruzko azterke-

tan antzemandako arazoei, adibidez, “%10 murriztea gizonaen eta emakumeen arteko langabezia tasaren alde”. Horrez gain, helburu orokorrak lortzen laguntzen duten helburu *instrumentalak* ere zehaztu beharko dira; azken horiek lotuta egongo dira baliabideen azterketari, adibidez, “arriskuan dauden gazteen gizarte eta hezkuntza arazoei aurre egitearren, sail jakin batzuen arteko koordinazioa hobetzea.

Diagnostiko ona egin bada, eta arazoak, beharrak eta bi horien zergatiak ondo identifikatu badira, helburuak eta neurriak adierazteko konbertsio bat besterik ez da egin behar izango: irudi negatibo bat positibo bihurtu; beste era batera esanda, zergatien eta ondorioen arteko erlazioa, helburu eta bitartekoen arteko erlazio bihurtu beharko da.

Helburuak argi, garbi eta zehatz adierazi beharko dira, ondoren balioztatu ahal izateko ea lortu diren; horrez gain, ahal den neurrian, aldagairen bat edo beste kopuru bidez adierazi beharko da. Bestalde, adierazi beharko da zein populaziotan edo zein baldintzetan erabaki den esku-hartzea, adibidez:

- Gazte guztiak.
- Talde espezifikoak: gizartean baztertuta daudenak, arrisku taldeak, arazo jakin bat dutenak, zerbitzu edo baliabide espezifikoak erabiltzen dituztenak,...
- Gazteria zerbitzuetako profesional edo teknikariak.
- Gazteekin harremana duten beste zenbait bitartekari (irakasleak, senitartekoak, gazteekin lanean diharduten elkarteetako partaideak,...).
- Gaur egungo egoera aldatzeko edo iraunarazteko baldintzak (administraziokoak, diruzkoak, materialak, politikoak,...).

### 2.1.5. *Proiektuak*

Atal honetan azaldu beharko dira erakundeak, sailak edo arloak, zehaztutako helburuak lortzearen, aurrekusten dituen proiektuak. Jaso beharko dira bai Gazte Planean daudenak, eta bai gazteei berariaz, edo populazio osoari, baina gazteei bereziki, zuzendutako proiektuak ere.

Proiektuak deskribatzerakoan, komeni da azaltzea, Gazte Planeko programazio fitxak betetzerakoan bezala, honako gai hauek:

- proiektu bakoitzaren helburuak,
- zein populaziori dauden zuzenduta,
- helburuak lortzearen programatu diren jarduerak,
- aurrekontua,
- epeak,
- aurreikusitako balioztatze sistema.

Azkenik, adierazi beharko da ea programa Gazte Planean jasota dagoen edo ez.

### 2.1.6. *Indarraldia*

Zehaztutako helburuak lortzeko aurreikusten den epeari dagokio. Gazteria politikak epe ertainekoak edo luzekoak izan ohi dira, baina agiriak zehaztu egin beharko du erakundeak, sailak edo arloak zein helburu lortzeko konpromisoa hartzen duen, zein proiektu egingo duen eta urtean zehar zein baliabide erabiliko duen.

### 2.1.7. *Balioztatze sistema*

Erakundeak, sailak edo arloak beren politika publikoen jarraipena eta balioztatzea egiten ote duen adierazi beharko da, eta zehazki, gazteriaren politikaren jarraipena eta balioztatzea egiten duten edo ez; hori guztia, proiektu konkrituak balioztatzen diren edo ez alde batera utzita. Hala badagokio, balioztatzeko modua eta aurreikusitako metodologia ere zehaztu beharko dira.

## 2.2. **Gazte Plana osatzen duten proiektuak**

Ezarpen prozesuaren fase nagusietako bat da erakundeek urtero-urtero egiteko hitz ematen duten proiektuak identifikatzea eta deskribatzea. Langintza horretan, garrantzitsua da zenbait alderdi hartzea kontuan.

Alde batetik, nahitaez zehaztu behar da ea zein proiektuk laguntzen duen Gazte Planean zehaztutako eskuhartze lerroak eta ekintzak garatzen, eta, beraz, helburuak lortzen. Horrela bada, komeni da zehaztea zein *irizpide* hartuko den kontuan Planaren eskuhartze lerro eta ekintza bakoitza zein proiektuk osatuko duen jakiteko.

Beste alde batetik, komeni da proiektuen diseinua bat etortzea edozein plangintza eta programazio egiteko arauekin: esku hartuko den arazoa identifikatzea, xede populazioa zehaztea, helburu neurgarriak zehaztea, jarduerak deskribatzea, inbertituko diren baliabideak eta balioztatzeko sistema aurreikustea.

### 2.2.1. *Gazte Planean proiektuak sartzeko irizpideak*

I. Gazte Planean, Batzorde teknikoko kideek zenbait irizpide adostu zuten Plana osatzen zuten proiektuak identifikatu ahal izateko. Irizpide horiek baliagarriak dira ondorengo gazteria planetarako ere.

Irizpideak bi planetan bana daitezke: batzuk proiektuen izaerari buruzkoak dira, eta beste batzuk, egoki dakiekeen aurrekontuari buruzkoak.

#### 2.2.1.1. *Proiektuaren izaerari buruzko irizpideak*

##### a) *Koherentzia Plan osoarekin*

Proiektuak lagundu behar du sartuta dagoen Gazte planaren ekintza eta eskuhartze lerroa garatzen; hau da, lagundu behar du planak, ekintza jakin horren bidez, erantzun nahi

dion arazoa konpontzen. Horrela izan dadin, lagungarria izan daiteke, ekintzen eta eskuhartze larroen zentzua ulertzeko eta programa hori sar daitekeen jakiteko, gazteen egoerari buruzko diagnostikoan begiratzea (Planaren 4. kapitulua).

b) *Programaren hartzaileen artean gazteak izatea*

Gazteek, oro har (14 eta 30 urte bitartekoak), edo ezaugarri bereziak dituzten gazterien zati batek (adibidez, arriskuan daudenak), izan behar dute programaren hartzaileetako batzuk.

c) *Gazteak esku-hartzaile*

Proiektua populazio osoari bideratuta badago, hartzailean zein diren zehaztu gabe, gazteek esku hartu behar dute proiektuan (adibidez, jende guztiarentzat egiten diren kontzertuak ez ditu Planak jasotzen, baina bai, ordea, kontzertu horiek antolatzen badira gazteei jendearen aurrean jotzeko aukera eskaintzen bazaie).

### 2.2.1.2. Proiektuei egotzi dakizkiekeen aurrekontu eta gastuei buruzko irizpideak

a) *Gazte Planaren aurretik bazeuden proiektuak*

Gazte Plana egin aurretik egiten ziren jarduera edo proiektuei dagokienez, aurreko urteko gastuaren gehikuntza baino ez da jasoko.

b) *Herritar guztiei zuzendutako proiektuak*

Herritar guztiei zuzendutako proiektuei dagokienez, zaila da kalkulatzeko zein aurrekontuk izango duen eragina gazteengan; halakoetan, programazio fitxa betetzerakoan, bete gabe utzi beharko da aurrekontuari dagokion atala, eta, ondoren, balioztatze fitxan, gazteriarri eskaini zaion gastua adierazi beharko da (eta ezin bada, gutxi gorabehera).

c) *Egitura gastuak*

Gazte Plana ezarri aurretiko egiturei dagokien gastua ez da adieraziko ez programazio fitxan, ezta balioztatze fitxan ere (adibidez, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak). Aurreko urtean gazteei bideratutako aurrekontuaren gehikuntza baino ez da egotziko.

Aldiz, Gazte Planari egotz dakizkioke egitura berriak sortzeko egindako inbertsioak (adibidez, enpresak sortzeko mintegiak). Halakoetan, balioztapena egiterakoan, gastua asko murriztuko da urte batetik bestera, lehenengo urtean baino ez baita izango inbertsioa. Hala ere, ekonomia adierazleen azterketa osatu beharko da beste adierazle batzuekin, proiektuaren ondorioak oso-osorik ikusi ahal izateko.

Elkarteei ematen zaizkien diru laguntzei dagokienez, bereizi egin beharko dira egiturazkoak (elkarteen egitura-egoerak), horiek ez baitira Gazte Planean jasoko, beste proiektu batzuetatik, adibidez, gazteen ekimenei erantzutekoak direnak edo hitzarmenak egitekoak; azken bi horiek jaso egingo dira Gazte Planean.

Gazteentzako informazio zerbitzuen alorrean, aurreko urteko gastuaren gehikuntza baino ez da egotziko (hobekuntzak, informazio gune berriak, aurreko urtetik gehitu den gastu arrunta,...); ez dira jasoko mantentze gastuak.

Edonola ere, oharren atalean zehaztu egin behar dira sartzen ari diren aurrekontu kontzeptuak, alegia, bereizita jarri behar dira inbertsioei dagozkienak, proiektuei dagozkionak, mantentzeari dagozkionak,...

d) *Pertsonal gastuak*

Edonola ere ez dira egotziko bertako langileen gastuak (1. kapitulua).

e) *Zenbait erakundek elkarrekin finantzatutako proiektuak*

Zenbait erakundek esku hartzen duten proiektuetan, bikoiztapenik izan ez dadin, erakunde bakoitzak berak egin dituen gastuak egotziko ditu, hau da, erakundeak berak eman duena eta ez beste erakunde batzuetatik etorri dena. Oharren atalean, era berean, adierazi beharko dira proiektuaren gastu osoa (elkarrekin finantzatzen duten erakunde guztien aurrekontuak).

Adibide bat jartzearen, Eusko Jaurlaritzak finantzatzen du Oinarrizko Errenta, eta Udalek kudeatzen dute. Beraz, Jaurlaritzak, programazio eta balioztatze fitxetan, adierazi-ko du aurrekontua eta dagokion gastua; Aldundiek eta Udalek, berriz, hala balegokie, Oinarrizko Errenta handitzen duten ekarpen osagarriak eta kudeaketa gastuak ere bai; baina ez dituzte programa honetarako Jaurlaritzak egindako transferentziak egotziko.

f) *Beste plan batzuekin egituratzea*

Abian jarritako beste plan batzuekin egituratzen diren ekintzetan (adibidez, droga-menpekotasun plana), eta enuntziatua “sustatzea”, “garatzea” edo “zabaltzea” bada, aurreko urteko aurrekontuaren gehikuntza baino ez da egotziko.

g) *Zailtasunak aurrekontuaren kopuruak zehazteko*

Proiektuen aurrekontuak kopurutan jartzeko zailtasunak izanez gero (adibidez, zerga arauak edo zergak ordaintzeagatiko atzerapena), gutxi gorabeherako datua jarriko da, eskura dagoen azken datuaren arabera (esaterako, aurreko ekitaldikoa).

Batzorde Teknikoa eta balioztapen talde bat arduratuko dira, urtero, egiaztatzen erakundeek aurkeztutako proiektuak bat datozela aipatutako irizpideekin; Zuzendaritza Batzordeak, berriro, aztertu eta erabakiko du Gazte Planean sartu edo ez.

### 2.2.2. *Proiektuak zehaztea*

Ondo zehaztutako plan eta programek bildu behar dituzte eskuliburu honetako lehenengo atalean deskribatutako osagaiak: zergatia, oinarrian dagoen teoria eredia deskribatzea, populazioa zehaztea, helburuak zehaztea, jarduerak deskribatzea, aurrekontua zehaztea, kronograma edo epeak ezartzea eta balioztatze sistema aurreikustea.

Gazte Plana osatzen duten proiektuei buruzko informazioa biltzen da datu base batean bildutako programazio fitxa batzuen bidez. Fitxa horietan ez dago zertan jaso, kasu guztietan behintzat, aipatutako datu guztiak, baina komeni da ahalik eta homogeneousen bete-tzea, ondoren zehaztuko ditugun irizpideekin bat etorrira.

### 2.2.2.1. Programazio fitxa

Fitxak 14 eremu ditu; horietatik 6, aurrez ezarritako zerrendatan, eta dagokiona baino ez da aukeratu behar; gainerakoak programaren arduradunak beteko ditu. Honakoak dira eremuak:

#### a) *Erakundea / Saila*

Datu baseko zerrendan, dagokiona aukeratu behar da.

#### b) *Arloa / Eskuhartze lerroa / Ekintza*

Zerrendan aukeratu behar da dagokion ekintzaren kodea. Ekintza bakoitzari zenbakizko kode bat dagokio (adibidez, 4.4.2.). Datu basean, nahikoa da ekintzaren kodea aukeratzeari hiru atalen datuak ager daitezen (arloa, eskuhartze lerroa eta ekintza).

#### c) *Deskribapena*

Kontua da argi, garbi eta zehatz adieraztea ekimenaren edo programaren definizioa eta hori garatzeko egin beharreko jarduerak (bilerak, hitzaldiak, ikastaroak,...); eta, ahal izanez gero, kopurua ere bai.

#### d) *Helburuak*

Gazteei zuzendutako proiektuaren helburu espezifikokoak zehaztu behar dira, eskuhartze lerroarekin bat etorriko direnak, eta hala balegokio, Gazte Planari dagokion diagnostikoarekin ere bai.

Helburuetako bat da lortu nahi den emaitza alde aurretik formulatzea; diana populazioan lortu nahi dena adierazten du (informazioa ematea, etxerako sarbidea eskaintzea,...). Helburuek egiaztatze modukoak izan behar dute. Lorpenak egiaztatu egin behar dira.

Bereizi egin behar dira jomugak edo helburu orokorrak helburu espezifikoetatik. Helburu orokorra epe luzean iritsi nahi den egoera ideala da (drogei aurrea hartzea edo gizarteratzea lortzea); helburu espezifikokoak, aldiz, programaren bidez lortzen saiatuko garenak. Bestalde, jardueretatik (hitzaldiak antolatzea, prestakuntza ikastaroak egitea,...) ere bereizi behar dira. Helburu batek antzemandako arazo bati erantzuten dio, eta jarduerak dira helburua lortzeko baliabideak (adibidez, arazoa baldin bada gazte langabeen kualifikazio maila urria, helburua izango da gazte horiei prestakuntza eskaintzea, eta jarduerak, berriz, prestakuntza ikastaroak).



Helburuak formulatzeko zenbait arau praktiko:

- Erabiltzen diren esapide eta aditzek argi eta garbi adierazi behar dute erakunde batek zein konpromiso hartu duen jokabide batekiko, eta konpromiso hori neurgarria eta behatzeko modukoa izango da. “Sustatu”, “bultzatu” edo “indartu” hitzen bidez adierazten diren helburuak hainbat erataraz interpretatu daitezke, eta ez dute, beraz, edukia argi adierazten; “handitu”, “hornitu” eta “murriztu” aditzek, aldiz, jokabide neurgarriak adierazten dituzten hitzak dira.
- Helburu espezifiko bakoitzak helburu edo espero den emaitza bakar bati baino ez dio egingo erreferentzia. Bi jomuga edo gehiago zehazten duten helburuak balioztatzeke zailtasunak izango ditugu, estrategia bat baino gehiago behar izango delako.
- Helburuek argiak eta zehatzak behar dute izan, eta ez da horien esanahiari buruzko zalantzarik sortu behar. Ahal den guztietan, kopuru bidez etorriko dira adierazita aldagaiak. Helburuak ez badira argi eta zehatz definitzen, jardueren emaitza zuzenek lagundu behar dute anbiguotasuna argitzen. Adibidez, erakunde batek proposatu zuen programa bateko helburuak honela zioen: “Baliabide urriko alderdi geografikoetan bizi direnei kulturako sarbidea eskaintzea, kultura eskaintza duina eskainiz, betiere inguru horietako eskaerara egokitu-ta”; horrela formulatuta dagoen helburua nekez neur daiteke, eta, horregatik, neurtzerakoan, helburu hori lortzearren programatu diren jardueren emaitzak neurtu beharko dira; halakoetan, programatzerakoan zehaztu egin beharko da zein jarduera egingo den.
- Azkenik, helburuak formulatzen direnean, helburu horietara iristeko epeak ere aurreikusi beharko dira.

e) *Hartzaileak*

Proiektuak izan lezakeen estaldura zehaztu beharko da, hau da, zenbait herritarri lagundu nahi zaion.

Lehentasuna izango dute 14-30 urte bitartekoei zuzendutakoak. Talde handiagoei zuzendutakoak badira, kalkulatu egin beharko da, ahal den neurrian bederen, 14-30 urte bitarteko zenbatek jaso lezaketen etekina; horretarako, aurreko urteetako datuak har daitezke erreferentzia gisa.

Proiektuan ezarri badira hartzaileak mugatzeko irizpideak, zehaztu egin beharko da zein diren irizpide horiek.

f) *Arduradunak, ardurakideak eta laguntzaileak*

Datu basearen zerrendan dagokiona aukeratu beharko da; arduradunak eta ardurakideak Administrazio Publikokoak izango dira, eta laguntzaileak, aldiz, Administrazioakoak ez diren erakundeak.

g) *Arduradun eta ardurakideei buruzko oharrak*

Erakunde arduradunei eta laguntzaileei dagozkien oharrak jaso beharko dira.

h) *Aurrekontua*

Aurrekontuaren kopurua izango da 14-30 urte bitartekoei zuzendu behar zaienari dagokiona; 1. kapitulua salbuetsi behar da (bertako pertsonala).

i) *Aurrekontuari buruzko oharrak*

Ezin bada aurrekontuan jaso 14-30 urte bitarteko gazteei egotzitako gastua, atal honetan jaso behar da. Komenigarria iritziz gero, egotzi gabeko aurrekontu osoa adieraz daiteke, baina eremu honetan bakarrik.

j) *Aurrekontu saila*

Aurrekontu kodean idatziko da. Ezin izango balitz, zergatia adierazi behar da oharren atalean.

k) *Balioztatze adierazleak*

Adierazleek aztergaiaren kantitatea edo kalitatea erakusten dute; informazioa sistematizatzeko eta programa bat aplikatzerakoan gertatutako aldaketak zehazteko modurik egokienetakoa dira. Hala ere, neurtu nahi ditugun adierazleen alderdi batzuk baino ez dituzte jasotzen; beraz, ezinbestekoa da eskuhartze lerroaren alderdi nagusiak zehatz jaso eta eskuhartze lerro horren ikuspegi globala eskainiko duten adierazle multzoa zehaztea.

Adierazle on batek honako baldintza hauek bete behar ditu:

- Egokitasuna eta garrantzia: programaren alderdi adierazgarrienak neurtu behar dituzte, balioztatu nahi direnekin harreman zuzenean daudenak, alegia.
- Zehaztasuna eta fidagarritasuna: neurri zehatzak eskaini behar dituzte, eta beste batzuek erabilita ere, emaitzek berdinak behar dute izan.
- Objektibotasuna: adierazleek gertaerak adierazi behar dituzte; ez, ordez, usteak.
- Interpretatzen errazak izan behar dute.
- Eskuragarritasuna: adierazlea oinarritu behar da eskura dauden datuetan, kalkulua azkarra izan dadin eta kostua ere, onartzeko modukoa, bai diruari dagokionez, eta bai kalkulua egiteko behar diren giza baliabideei dagokienez ere.
- Espazioan eta denboran konparatzeko modukoak izan behar dute.

Esku-hartzei buruzko informazioa ahalik eta homogeneoena izan dadin, I. Eranskinean proposatu ditugu zenbait adierazle, Gazte Planean parte hartzen duten erakunde guztiek erabili ditzaten. Horrela, programa jakin bateko fitxa betetzerakoan, guk proposatzen dugu programa jakin horren barruan dagoen ekintza balioztatze aukeratutako adierazleak erabiltzea. Adibidez, II. Gazte Planaren 1.4.2. ekintzan biltzen diren proiektu guztiek (“autoenplegua bultzatzeko laguntzak ematea”) erabili behar dituzte balioztatze adierazle berak:

- Enpresa sortzeko laguntza jasotzen duen gazte kopurua (aldea sexuaren arabera).
- Laguntza eskatzeko aurkeztu den proiektu kopurua.
- Diruz lagundutako proiektu kopurua.
- Eratutako enpresa kopurua.

Komeni da jakinaraztea proposatutako adierazleen helburua ez dela Plana osatzen duten ekintza guztiak balioztatzea —horretarako, ezinbestekoa izango litzateke ekintzari buruzko datu asko zehatz jakitea—; aitzitik, helburua da daturik esanguratsuenak biltzea, estrategia edo eskuhartze lerroen eta Planaren beraren emaitzak —bitartekoak eta azkenak— balioztatu ahal izateko.

### 1) *Ekintzaren teknikari arduraduna*

Programa edo ekintza bakoitzaren jarraipen zehatzagoa egitearren, ekimenaren ardurazuzena duen pertsona identifikatu beharko da.

### 2.2.2.2. Programazioari buruzko datuak biltzeko prozedura

Erakundeen programazioari buruzko datuak biltzeko prozedura izango da I. Gazte Plana indarrean egon zen bitartean egon zenaren antzekoa:

- Urtero, irailean, Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendaritzak, Gazte Planaren Idazkaritza baita, datu basea bidaliko die Planaren baitan dauden erakundeei, programazio fitxak hutsik daudela; erakundeek fitxa horiek egoki bete behar dituzte, eta, horrela, ekintzak egiteko konpromisoa hartuko dute.
- Azaroan, Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendaritzak fitxak jasoko ditu, aztertu ere bai, jakiteko ea adostutako irizpideekin bat datozen, eta Zuzendaritza Batzordean aurkeztuko ditu, aztertu eta onar ditzaten.



**BIGARREN ATALA**  
**Balioztatzea**

## 1. KONTZEPTUAK ETA METODOLOGIA OROKORRA

Balioztatzea definitzerakoan, esan liteke honakoa dela: “prozesu bat, irizpideak eta arauak ezarri eta aplikatzen dituen, programaren osagarri buruzko iritzia eduki ahal izateko, hau da, sortzen denean, betetzen denean, eta programazioa egin aurretiko planifikazio prozesuaren etapetan” (Pinault, 1987).

Balioztatze prozesuaren helburua da programak hobetzea, eta, horretarako, programa horiexen hutsuneak identifikatu eta aldatzeko gomendioak eskaintzen ditu; horrek guztiak informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa sortzen du, beharrezkoa dena zein erabaki hartu behar diren jakiteko eta, behar izanez gero, berriro programatzeko.

Balioztatze oso batek, emaitzak ez ezik, planifikazio prozesua osatzen duten osagarri guztiak ere aztertu behar ditu. Egiten den fasearen arabera, balioztatze mota desberdinak daude.

1. koadroa: Balioztatze motak, aztertzen den planifikazio fasearen arabera

Planaren edo programaren garapen fasea	Balioztatze mota
<p><i>Egitura</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Gizarte diagnostikoa: beharrak eta baliabideak balioztatzea, lehenetsiak zehaztea</li> <li>— Plana diseinatzea: helburuak ezartzea, populazio xedea zehaztea, estrategiak aukeratzea.</li> </ul>	<p><i>Egitura balioztatzea</i></p> <p>Honakoak aztertzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Programa abian jartzeko egokitasuna: ea egoera aztertu den eta beharrak eta baliabideak balioztatu diren.</li> <li>— Diseinua eta balioztagarritasuna: ez helburuak zehaztuta dauden, neurgarriak eta identifikatzeko modukoak diren, ea baliabideak nahikoak eta egokiak diren, eta ea ekintzak logikoak eta koherenteak diren helburuekiko.</li> </ul>
<p><i>Prozesua</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Aukeratutako ekintzak eta estrategiak ezartzea.</li> <li>— Prozedurak.</li> <li>— Jarduerak.</li> </ul>	<p><i>Prozesua balioztatzea</i></p> <p>Jarduerak zenbateraino bete diren balioztatzea, honakoen bidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Jarraipena edo monitorizazioa: planaren edo programaren aplikazioari buruzko informazioa etengabe eta sistematikoki biltzea.</li> <li>— Tarteko balioztapenak: jarraipenak dirauen bitartean bildutako datuen azterketa kritikoa egitea.</li> </ul>
<p><i>Berehalako emaitzak edo ondorioak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Emaitzak aztertzea.</li> </ul>	<p><i>Emaitzak aztertzea edo balioztatze gehigarria</i></p> <p>Emaitzak osatzen dituzten osagaiak neurtzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Efkazia: helburuen betetze maila, edonola formulatu direla ere.</li> <li>— Eraginkortasuna: programaren bidez lortutako ondorioak, inbertitutako baliabideak kontuan hartuta, dirutan adierazita.</li> <li>— Estaldura: xede zen populaziotik ea zein populaziori dakarkion onura planak.</li> <li>— Erabilera: Baliabide erabilgarrietatik ea zein erabili den.</li> <li>— Kalitatea: azpiegituren egoera, langileen tratua, eskaintzen zaion denbora, ...</li> <li>— Gogobetetasuna: erabiltzaileek jasotako zerbitzu edo prestazioari buruz duten iritzia.</li> </ul>
<p><i>Epe luzeko eragina</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Gizarte errealitatean izan den eraginaren azterketa.</li> </ul>	<p><i>Eragina balioztatzea</i></p> <p>Epe luzeko eraginak aztertzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>— Jarrera aldaketa, jasotako ezagupenak, bizitza kalitatea,... balioztatzea.</li> <li>— Arazoaren iraupena edo eragina murriztea.</li> </ul>

## 1.1. Planaren egitura balioztatzea

### 1.1.1. Egoeraren diagnostikoa balioztatzea

Diagnostikoa egitea eta beharrak balioztatzea plangintza egiten dutenen lana da. Baliotzatzaileek aztertu behar dute ea lan horiek ondo egin diren.

Arazoak balioztatzeari dagokionez, kontua da honakoak jakitea:

- Ea egoki identifikatu den arazoen eta beren ezaugarrien irismena zein den.
- Ea arazoak aurkeztu diren esplizituki eta neurtzeko moduan.
- Ea errealitatea zehatz-mehatz deskribatzen duten, diagnostikoa egiteko erabili diren adierazlean egokiak ote diren xede populazioaren egoeraren alderdi guztiak aztertzeko.
- Ea zein metodologia eta iturri erabili den.

Balioztatzaileak aztertu beharko du beharren azterketa zein ikuspuntutatik egin den; hori egitean, garrantzitsua da jakitea ea kontuan hartu den, inkesten bidez edo adostasuna bilatzeko beste metodoren baten bidez, planaren xede den populazioaren iritzia.

Baliabideen balioztapenari dagokionez, balioztatzaileak aztertu beharko ditu planean datozen datuak: ea programa motak zehaztuta dauden, planaren ezaugarriak deskribatuta dauden, estaldura, erabilera, tokiaren araberrako banaketa, kostua eta beste zenbait alderdi kualitatibo ere, adibidez, erabiltzaileen gogobetetasun maila edo zein arreta maila eskaini zaien.

Azkenik, lehenetasunak ezartzeko prozedurak eta irizpideak ere balioztatu beharko ditu.

### 1.1.2. Diseinua balioztatzea

Planak ba ote dituen behar dituen osagai guztiak (1.2. atalean zehaztuta daudenak) aztertu behar da, bai eta osagai horiek ondo zehaztuta dauden eta koherenteak diren ere.

Honakoa aztertu beharko da:

- Egoeraren diagnostikoak erakusten ote duen plana edo programa egitea edo implementatzea.
- Ea planak ba ote duen printzipioen adierazpenik, eta ea printzipio horiek bat datozen gaur egungo gazte politikekin.
- Xede den populazioa ondo identifikatuta dagoen.
- Helburuak eta jarduerak egoki zehaztu ote diren.
- Dagozkion aurrekontu aurreikuspenak egin ote diren eta aurreikuspen horiek koherenteak ote diren planaren helburu eta jarduerekin.
- Epeak ezarri ote diren.
- Plana edo programa balioztatzeko sistema aurreikusi ote den.

Horrez gain, planaren koherentzia ere aztertu behar da, bere osagaien arteko harremanen bitartez, eta horretarako, aztertu beharko da:

- Ea helburuak zuzen hierarkizatuta dauden.
- Ea koherentziarik ba ote den aurreikusitako jardueren eta lortu beharreko helburuen artean; jarduerak ahalik eta egokienak eta eraginkorrenak izan behar dute helburuak lortu ahal izateko (adibidez, jarrerak aldarazteko ez da nahikoa informazio kanpaina bat egitea; behar-beharrezkoa da alderdi afektibo, kognitibo eta jokabidezkoak landuko dituzten berariazko teknikak erabiltzea). Bestalde, balioztatu beharko da ea helburu guztiak islatzen ote diren planean proposatutako ekintza edo jardueretan.
- Ea planaren edo programaren helburuak bideratuta ote dauden arazoak konpontzera eta antzemandako beharrak asetzera.
- Ea aurreikusitako jardueren eta ekintza ereduaren arteko harremana egokia den.
- Ea aurreikusitako helburuen eta ekintza ereduaren arteko erlazioa logikoa den.
- Ea eredu teorikoa eta aukeratutako ekintzak onenak ote diren.

Alderdi horiek guztiak balioztatzerakoan, erabilgarria da oso balioztatzen ari den plana edo programa alderatzea antzeko beste batzuekin, hartara, helburu bera duten planean identifikatu ahal izango ditugu gure planean jaso ez ditugun helburu eta ekintzak.

Osagaiak zenbat eta zehaztuago egon eta zenbat eta koherenteagoa izan, hainbat errazago izango da plana edo programa balioztatzea.

### 1.2. Prozesua balioztatzea

Balioztatzea oinarritzen da, batetik, behaketan, nola jarri den praktikan, nola aplikatu den eta nola funtzionatzen duen behatu behar baita; eta, bestetik, aurreikusikoarekin alderatu behar da, planaren edo programaren garapena gidatzearen, eta behar izanez gero, aldaketa zehatz eta puntualak egitearen.

Prozesuaren balioztapenaren bidez, erantzuna eman beharko zaie ondoko galdera hauei:

- Plana garatzen ari da aurreikusi zen bezala?
- Iristen ari da diana populaziora?
- Iritsi beharreko zeinengana ez da iristen ari?
- Proiektuak esku hartzen ari direnak asebeteta daude proiektuan izan duten esperientziarekin?
- Parte hartzaileak egiten al dituzte proiektuaren diseinuan ezarritako jarduerak?

Bereizi egin behar dira tarteko balioztapenaren eta plan edo programaren jarraipenaren artean. *Jarraipen sistema* hastapenean eratu behar da, eta programa osoan zehar, etengabe, garatzen da. Aldiz, *tarteko balioztapena* planaren barruan egiten da, etapa edo faseen bat bukatzen denean; une horretarako planak emaitzak aurreikusten zituen, eta alderatu beharko da zer aurreikusten zen eta zein emaitza izan den, eta horren arabera hurrengo fasea formulatzeko eta egiteko aldaketak egin beharko dira, hala balegokio; tarteko balioztapenak data jakina du, eta aldeztatik programatu ohi da.

Jarraipenak kontrolarekin eta barneko kudeaketarekin dauka zerikusia; tarteko balioztapena, berriz, plana zenbateraino garatu den jakiteko egiten da.



### 1.2.1. Jarraipena edo monitorizazioa

Programazioaren aplikazioari —giza baliabideen, finantza baliabideen eta materialen benetako erabilera— buruzko informazioa etengabe eta sistematikoki jasotzean datza, izan litezkeen desbideraketak antzematearren eta programaren kudeaketa hobetu ahal izateko.

Oro har, programaren kudeatzaileek berek egin ohi dute, Jarraipen Batzordearen bidez, eta informazioa biltzeko protokoloak erabiltzen dituzte lan horretarako.

Jarraipenak ez du kontrol hutsa izan behar, eta beste zenbait funtzio indartu behar dira. Jarraipena egiteko sistema nolakoa den, halakoa izango da tarteko balioztapenen efikazia.

Funtsezkoa da hiru alderdi hauei buruzko informazioa etengabea izatea:

#### a) *Testuinguru operatiboaren jarraipena*

Behar-beharrezkoa da balioztatzea aurreikusitako ekintzak edo ekintza horien emaitzak nabarmen baldintza ditzaketen ekonomia, gizarte, politika edo lege aldaketak.

Horrez gain, kontuan hartu behar da ea zenbateraino diren koherente eta osagarriak autonomia, herrialde edo udaleko planetikiko.

#### b) *Kudeaketaren jarraipena*

Honakoa balioztatu behar da:

- Sistemaren beraren funtzionamendua, behar den informazio guztia lortuko dela bermatzeko, eta
- Inplikaturako eragile guztien parte hartzea.

#### c) *Egindakoaren balioztapena*

Jarraipen hori bi eratakola izan daiteke:

- Kantitatea neurtuta, adierazleen bidez,
- Deskribatzailea edo kalitatea neurtzekoa, eskura dauden informazio, azterketa edo berariazko ikerketetatik abiatuta.

#### 1.2.1.1. Adierazleen bidezko jarraipena

Jarraipen adierazleak honakoak izan litezke:

##### a) *Egikaritza adierazleak:*

- Finantza egikaritzari edo erabilitako bitartekoei dagokiena; ekintza jakin batean egin diren gastuen jarraipena egiteko erabili ohi dira (prestakuntza programa baten kostua, informazio zerbitzua emateko gune baten kostua,...),
- Ekintza jakin baten egikaritza zenbateraino bete den balioztatzeke (laguntza jasotzen duten enpresen ehuneko, prestakuntzarako sentsibilizazio kanpainak,...).

- b) Prozesuaren balioztatze fasean ekintzaren berehalako ondorioak, edo zuzenak, neur-tzen dituzten *emaitza adierazleak*. Fisikoak izan daitezke (ikastaro jakin bat egin du-ten ikasleen arrakasta indizea, enpresatan praktiketan diharduen Lanbide Heziketako ikasle kopurua...) edo diruzkoak ere bai (kultura jardueratan egindako inbertsioak).

Jarraipena adierazleen bidez egitean, kontuan hartu behar da, zenbaitetan, zaila izaten dela jakitea zein kausalitate dagoen esku-hartzeen eta lortutako emaitzen artean. Adibide bat jartzearen, baliteke egoera ekonomikoa hobetzea plan batean aurreikusitako esku-hartze baten ondorioz sortu diren faktore exogenoengatik. Hala bada, balioztapen meto- do esperimentalen bidez aldera daitezke emaitzak, bai ekintza baten ondorioz talde bate- an izan den emaitza, ekintza jaso ez duen antzeko beste talderen batekin (kontrol taldea); metodo horiek hurrengo kapituluan daude azalduta.

Izan ohi da beste eragozpen bat ere adierazleak erabiltzerakoan: batzuetan ez da es- kura izaten, behar den epearen barruan, kalkulua egiteko behar den informazioa.

### 1.2.1.2. Jarraipena, eskura dauden agiri tekniko, arau edo beste zenbait informazioaren bidez

Esku-hartze batzuen egikaritzea balioztatzeko, beharrezkoa izaten da agiri tekniko edo administratiboak aztertzea. Agiri bat sortu behar denean gertatu ohi da hori, adibidez, “lanbide orientaziorako gida egitea”, edo ekintzaren egikaritzea administrazio agirietan edo arauetan azalduta agertzen denean, adibidez, “ikastetxeen eta enpresen arteko lanki- detza hitzarmenak bultzatzea”.

### 1.2.2. Tarteko balioztapena

Tarteko balioztapenen helburu nagusia da jarraipen sistema indartzea eta erabakiak hartzen eta kudeatzen laguntzeko tresna izatea.

Proiektuak gutxienez hiru urte irauten duenean egin ohi dira tarteko balioztapenak. Gehienetan, kanpoko balioztatzaileak hartu ohi dira.

Tarteko balioztatzea izan ohi da bildutako datu guztiak era kritikoan aztertzea, batez ere jarraipen edo monitorizazio fasean, eta balioztatu ohi da ea lortu nahi diren helburue- tara iristen ari den progresiboki; izan litezkeen desbideraketak azaldu behar dira ondoren, eta esku-hartzearen emaitzen alde aurreko kalkulua egiten da. Horrez gain, uneko esku- hartzearen baliozkotasuna eta ezarritako helburuen egokitasuna ere aztertu ohi dira.

Tarteko balioztatze batek honako urrats hauek izan behar ditu:

- Planaren koherentzia egiaztatzea, eta aztertu ea planteatutako esku-hartzeen bidez lortzen ari diren espero ziren emaitzak.
- Adierazleen egokitasuna eta fidagarritasuna aztertzea, bai eta adierazle horiek egiteko behar den informazioa eskura ote dagoen aztertzea ere.
- Jarraipen sistemaren funtzionamendua behatzea, balioztatzeetarako behar den informazioa erregulariki jasotzen dela bermatzeko.
- Planean ezarritako esku-hartzeen eraginkortasuna aztertzea.

Analisi horiek egin ondoren, proposamen zuzentzaileak aurkeztuko dira, planaren efikazia areagotzeko.

Azkenik, Jarraipen Batzordek balioztatu beharko ditu programak doitzeko eta egokitzeko proposamenak, eta aldaketak egiteko dagozkion erabakiak hartuko ditu.

### 1.3. Emaitzak eta eragina balioztatzea

#### 1.3.1. Emaitzak balioztatzea

Emaitzak balioztatu behar dira programa bukatzen den une berean, eta une horretan aztertu behar da ea helburuak bete ote diren. Kontua da jakitea eta lortu nahi ziren helburuak lortu diren, eta emaitza horiek programari esker lortu ote diren. Emaitzen balioztapena planteatzerakoan, beste azalpen alternatibo batzuk ere identifikatu beharko dira, esplizituki kontrolatzeko.

Honakoak dira, batez ere, emaitzak balioztatzeko irizpideak:

- *Efikazia*: programa batean, aurrez ezarritako epealdi batean eta xede populazio jakin bati zuzenduta, ezarritako helburuak eta espero ziren emaitzak zenbateraino lortu diren neurtzean datza, horiek guztiak lortzeko behar izan den kostua aintzat hartu gabe. Informazioa hainbat bidetatik lor daiteke, esaterako, adierazleen, inkesten edo beste prozedura batzuen bidez, programa aplikatu ondorengo egoera alde aurrekoarekin alderatuta, edo programa aplikatu ez den egoera batekin alderatuz ere bai. Helburuak, espero ziren emaitzak, oinarrizko adierazleak eta informazio iturriak zenbat eta hobeto definituta egon, orduan eta errazagoa izango da efikazia neurtzea. Zenbaitetan, emaitzak balioztatu ahal izateko, beharrezkoak izaten dira diseinu berezituak, programari egotz ezin dakizkiokeen ondorioak ahalik eta gehien kontrolatuko dituztenak, alegia, azterketari baliozkotasuna emango diotenak; eredu esperimentalak edo ia esperimentalak dira horiek.
- *Eraginkortasuna*: kontsumitutako baliabideen arabera lortu diren emaitzak neurtzeko da. Emaitzak aurrez ezarritako gero, zenbat eta baliabide gutxiago erabili, orduan eta eraginkorragoa izango da esku-hartzea; aldiz, baliabideak aurrez ezarritako gero, zenbat eta emaitza hobea lortu, orduan eta eraginkorragoa izango da esku-hartzea.

Eraginkortasuna bi analisi motaren arabera aztertu ohi da:

- *Kostua-efikazia analisia*: hauxe erabiltzen da gehien. Kostuaren (dirutan adierazi ohi da) eta planaren edo programaren ondorioen (gizarte adierazleen bidez adierazi ohi da) arteko zatidura da. Neurri hori hasierako plangintzan aurreikusitako eraginkortasunarekin edo beste programa batzuen eraginkortasunarekin alderatuz gero, balioztatzeko beste osagai bat lortuko dugu.
- *Kostua-etekina analisia*: Bai kostuak eta bai ondorioak ere dirutan adierazi ohi dira.

- *Estaldura*: programa jasotzen duen populazioaren eta programa jasotzeko beharra duen populazio osoaren (diana populazioa) arteko aldea da. Horrez gain, komeni da zenbait informazio jasotzea ere, esaterako, erabiltzaileen profila, zerbitzuari edo programari buruzko informazioaren ezagutza maila, programarekiko jarrerak, programa ezartzeko zein eskaera izan den eta zer eskaini den, eta zenbaitetan, azter liteke prestazio bat bertan behera uzten dutenen proportzioa, adibidez, lan munduan sartzeko programa bat edo prestakuntza programa bat uzten dutenena.
- *Erabilera*: eskura dagoen baliabidea benetan erabili da. Erabilera koefizientea izan liteke, beraz, denbora unitate zehatz batean, programaren jardura batean benetan erabilitako baliabideen eta eskura dauden baliabideen arteko aldea.
- Programaren edo zerbitzuaren *kalitatea*, bere dimentsio guztietan: instalazioen kalitatea (eraikinen irudia, akzesibilitatea, kokapena, ekipamenduak, erosotasuna,...), eta arretaren kalitatea (kasu bakoitzari eskaintzen zaion denbora, zain egon behar den denbora, tramitazioaren iraupena, profesionalek eskaintzen duten tratua,...).
- Planaren edo programaren xede populazioaren *gogobetetasuna*: Ahal den guztietan, komeni da programa edo zerbitzua erabiltzen dutenen iritzia jasotzea. Kexa eta iradokizunetarako gutunontzia jarrita egin liteke, edo, bestela, inkesta errazen bidez (15 galdera-edo), alegia ordutegien egokitasuna, instalazioen erosotasuna, jasotako tratua edo beren eskaera bete ote den jakiteko galderak eginez.

Emaitzak ondo balioztatzeak ekar dezake estrategia edo programa sendotzea, eta eraginkorra eta efikaza dela erakutsiko du; baina, gerta liteke, eta hau ere garrantzitsua da, zenbait estrategia edo programa baliogabetzea, eta, jakina, horiek utzi edo aldatu egin beharko dira.

### 1.3.2. *Eragina balioztatzea*

Plana bukatu eta gerora balioztatu ohi da eragina. Eragina balioztatzerakoan, gizarte egoeran programak ekarri dituen aldaketak zein izan diren jakin nahi izaten da; aldaketa horiek helburu orokorrekin dute zerikusia. Baliteke programak sortutako informazioa baliozkoa izatea, baina, sarritan, inkesta espezifikotara jo beharko da. Badago, baina, estatistika informazio sistemak erregulartasunez jasotzen dituzte adierazleak erabiltzea, edo, bestela, beste batzuk sor litezke, ad hoc, programa aplikatu ondorengo azken egoera hasierako egoerarekin alderatzeko.

Emaitzak balioztatzerakoan bezala, zenbaitetan beharrezkoa izango da diseinu espezifikokoak erabiltzea, planari ezin egotz dakizkiokeen ondorioak kontrolatzearen.

### 1.3.3. *Ondorioak balioztatzeko ereduak (emaitzak edo eragina)*

#### a) *Eredu esperimental edo randomizatua*

Ausaz bi talde aukeratzen dira, bata esperimental, zeinari programa aplikatzen baitzaio, eta, bestea, kontrol taldea, lekuko gisa jokatzen duena; testak eginez edo bestelako

tresnen bidez, bi taldeen egoera balioztatu behar da, esku-hartzea egin aurretik eta ondoren. Azkenik, emaitzak alderatu behar dira.

Eredu honetan ezinbestekoa da aleatorizazioa, ausaz banatzeko kontrolatu ezin diren faktoreak, ezin baita jakin zein ondorio izango duten bilatu nahi den emaitzan.

Esku-hartzeak eragin dituen aldaketak identifikatzeko eredurik onena da. Badu, baina eragozpenik: aukeraketa ausaz egiten denez, beste alternatiba batzuetan baino lagin handiagoa behar izaten da. Batez ere osasun aroan erabiltzen dute.

b) *Eredu ia esperimentalak edo esperimentazio maila partziala dutenak*

Proiektuko edo proiektu gabeko taldeak ez dira ausaz aukeratzen. Talde kontrola izaten da talde esperimentalaren antz handien duena.

Funtsean, bi kategoriatan sailka daitezke talde ia esperimentalak:

- Denborazko serieak.  
Aldizkako neurketak dute oinarri; neurketa horiek egin ohi dira proiektua egin aurretik, proiektua den bitartean eta ondoren. Bi taldeetan egindako neurketek zein joera hartzen duten, programaren ondorioak eta magnitudea zehaztu ahal izango dira.
- Baliokideak ez diren kontrol taldeak, edo konparaziozkoak.  
Alderatu egin behar da programa aplikatu zaion pertsona taldea antzekoa den baina aplikatu ez zaion beste talde batekin. Ereduaren logika talde esperimentalekoaren berdina da: proiektua aplikatu aurretik eta ondoren neurketak egin behar dira. Baina bada alderik, izan ere taldeetako partaideak ez dira erabat ausaz aukeratzen, eta, beraz, ez dauka lagin aleatorio batek duen zehaztasuna.

c) *Esperimentalak ez diren ereduak*

Xede populazioa ezin bada alderatu talde lekuko batekin, beste aukera batzuk baliatu beharko dira, proiektuari egotzi ezin dakizkiokeen kanpo eraginak baztertzearren. Horien artean nagusi dira honakoak:

- “Aurretik” – “ondoren” ereduak  
Taldea bakarrarekin aritzen da, alegia, xede populazioarekin. Proiektuak eragina izan aurretik neurketa bat egin behar da, eta emaitza horiek alderatu behar dira tartean eta bukatu ondoren egiten diren neurketen emaitzekin.
- “Ondoren” ereduak  
Behin neurketa eginda, proiektua hasi aurretiko egoera berriro eraiki behar da, eskura dagoen informazioaz baliatuta; eta ondorioei buruzko iritzia eman aurretik, alderatu egin beharko da aurreko egoera bukatu ondorengoarekin.

## 2. GAZTE PLANA BALIOZTATZEKO EREDUA

2. koadroa: Gazte Plana balioztatzeko ereduaren eskema

Plangintzaren faseak	Balioztatze motak	Teknikak eta prozedurak
Egoeraren diagnostikoa	Egitura balioztatzea <ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Diagnostikoaren balioztapena</i></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Plana deskribatzen duen agiria aztertzea.</li> <li>• Plana egiten aritu direnei elkarrizketak egitea.</li> <li>• Gazteen gizarte egoera islatzeko erabili diren teknikak aztertzea.</li> </ul>
Plana diseinatzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Planaren diseinua eta balioztagarritasuna balioztatzea</i></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Plana egiten aritu direnei elkarrizketak egitea.</li> <li>• Gazteria politikei buruzko erreferentzia agiriak kontsultatzea.</li> <li>• Agiriak aztertzea: arauak, txostenak eta bestelako agiri teknikoak.</li> </ul>
Plana ezartzea	Prozesua balioztatzea <ul style="list-style-type: none"> <li>• Jarraipena</li> <li>• Tarteko balioztapena</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ekintzen egikaritzea mailari buruzko datuak biltzea.</li> <li>• Ekintzez arduratu behar diren teknikariei elkarrizketak egitea.</li> </ul>
Emaitzak aztertzea eta plangintza berregitea	Emaitzak eta eragina balioztatzea <i>Emaitzak balioztatzea:</i> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Efikazia</li> <li>• Eraginkortasuna</li> <li>• Estaldura</li> <li>• Erabilera</li> <li>• Kalitatea</li> <li>• Gogobetetasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Agiriak aztertzea.</li> <li>• Emaitzen adierazleak erabiltzea.</li> <li>• Inkesta espezifikoak.</li> </ul>
Eragina aztertzea eta plangintza berregitea	<i>Eragina balioztatzea:</i> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Jarrerak, jokabideak eta ohiturak aldatzea</li> <li>• Arazoaren bilakaera</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eraginaren adierazleak erabiltzea.</li> <li>• Inkesta espezifikoak.</li> <li>• Eztabaida taldeak.</li> <li>• Aldizkako edo unean uneko inkesten datuak.</li> <li>• Gazte Planarekin zerikusia duten gaiak aldizkako inkestetan sartzea.</li> </ul>

## 2.1. Gazte Planaren egitura balioztatzea

### 2.1.1. Diagnostikoa balioztatzea

Talde balioztatzaileak erabaki beharko du ea plangintza egin behar duen taldeak, plana egin aurretik, gazteen gizarte errealitatea aztertu eta nahikoa arrazoi ba ote dagoen esku-hartzeak abiarazteko, hau da:

- Ea beharrei buruzko azterketa egin ote den –adierazleak aztertuta, inkestak eginda edo adostasuna bilatzeko metodoen bidez-, eta, ea kontuan hartu dituzten, lan hori egiterakoan, populazioaren arlo guztiak eta aztergai duten gizarte ingurunearen esparru guztiak;
- Ea antzemandako arazoak aztertu diren, eta saiatu diren arazo horien zergatiak, ondorioak eta joerak ulertzen;
- Ea deskribatu dituzten eskura dauden baliabide guztiak eta antzemandako arazoei aurre egiteko behar direnak;
- Ea parte-hartzeko metodoen bidez ezarri ote dituzten jarduteko lehentasunak, eta ea horretarako kontuan hartu duten gazteen iritzia.

Horiek guztiak egiteko, 2. koadroko eskeman adierazitako teknikak eta prozedurak erabiltzen dira.

Hurrengo lerroetan zehatzago adieraziko dugu:

a) *Plana deskribatzen duen agiriaren azterketa eta elkarrizketak Plana egiten parte hartu dutenei*

Balioztapen horiek egiteko, informazioa behar da, eta informaziorik gehiena I. eta II. gazte planetan dago; hala ere, zenbait gai aztertzeke, adibidez, arazoak eta beharrak identifikatzeko prozedurak edo lehentasunak ezartzeko prozedurak, beharrezkoa izango da, ziurrenik, planak egiten dituztenei elkarrizketak egitea.

b) *Gazteen gizarte errealitatea islatzeko erabilitako tekniken azterketa*

Komeni da beharrak hainbat ikuspuntutatik aztertzea: estatistika datuak, gazteen eta gazteriaren esparruan diharduten profesionalen iritzia, adituen hausnarketak,... eta behar den beste metodoren arteko konbinazioa egin beharko da, gazteen errealitatearen ahalik eta zatirik handiena hartzearen.

Gehien erabili ohi den metodoetariko bat, Gazte Planean erabiltzen dena, hainbat *gizarte adierazle* aztertzean datza.

Ez da komeni informazio gehiegi metatzea, zaila izan ohi delako erabiltzen; baina gazteen egoeraren alderdirik funtsezkoenak jaso behar dira, eskura dauden datuen bidez kontrolatu ahal izateko eta beste ingurune eta populazio batzuetakoekin alderatu ahal izateko.

Planen diagnostikoa balioztatzerakoan erreferentzia gisa erabil litezkeen adierazlerik erabilienak azaldu ditugu gazteria politiken programazioari dagokion kapituluan.

Adierazle horiek eratzeko informazioa aurki daiteke, adibidez, gazteei zuzendutako al-dizkako edo une jakin bateko inkestetan, eta bai populazio osoari zuzendutakoetan ere, baldin eta adinaren arabera bereizten badute, hartara, gazteei dagozkien datuak ondorioztatu ahal izango dira.

Ondorengo lerroetan ekarri ditugu gazteen egoera aztertzeke oso baliozkoak izan daitezkeen zenbait agiriren erreferentziak, eta hala nahi izanez gero, Observatorio Vasco de la Juventud-Gazteriaren Euskal Behatokiaren Web orrian daude ikusgai: *Euskadiko Gazteak (1986, 1990, 1994, 2000)*; *Gazte Argazkiak*; *EAEko Gazte Elkartegintzaren Liburu Zuria 2003*; *Gaztetxoak eta aisialdia. Etorkizuna Aurreikusten 2001-2002*; *Euskal Gazteria eta Erakundeak 2000*; *Agirien buletina*; *Bibliografia buletina*; *EUSTATen estatistika datuak*; *Libro Blanco de la Comisión Europea. Un nuevo impulso para la juventud europea (2001)*; *Drogak: gehiago jakin, gutxiago arriskatu. Gazte Europarraren Gida (2003)*; eta abar.

### 2.1.2. Planaren diseinua eta balioztagarritasuna balioztatzea

Helburua da aztertzea ea planek osagai guztiak dauzkaten, ea ondo definituta dauden, eta, beraz, eta balioztagarriak diren, eta ea barne koherentziarik baduten.

Diseinua ondoko alderdien arabera balioztatuko da, eskuliburu honen lehenengo atalean deskribatutako azalpenekin bat etorrira:

- *Planaren zergatia*; plana egokia izango da, eta arrazoizkoa izango da aplikatzea, baldin eta diagnostikoaren fasean antzemandako behar jakin batzuei erantzuten badie.
- *Teoria ereduaren deskribapena*; argi azaldu behar dira oinarrizko printzipioak eta lerro nagusiak, horietan oinarritzen baitira ekintzak.
- *Populazioa zehaztea*: plana zein populaziori zuzentzen zaion eta zein izango diren ekintzak.
- *Helburuak zehaztea*, edo lortzea espero diren emaitzak, argi eta neurtzeko moduan.
- *Ekintzen azalpena*: zehatz-mehatz adierazi beharko da zer egin behar den eta nor den arduraduna.
- Aurreikusitako jarduerak egiteko behar den *aurrekontua zehaztea*.
- *Kronograma bat ezartzea*, epeak egokiak eta betetzeko modukoak izango dira.
- *Balioztatzeke sistema* aurreikusteak, metodologia eta erabiliko diren tresnak deskribatuko dituenak.

Halaber, planaren koherentzia balioztatu beharko da, hau da, ea bere osagaien artean erlazio logikoa dagoen:

- Helburu orokorren eta espezifikoaren arteko erlazio logikoa,
- Lortu beharreko helburuen eta aurreikusitako jardueren arteko erlazio logikoa,
- Helburu eta jardueren, eta beharren balioztagarritasunaren arteko erlazio logikoa,
- Helburu eta jardueren eta esku-hartzeko ereduaren arteko erlazio logikoa.



Analisi hau egiteko prozedura, batez ere, *agiriaren beraren azterketa* izango da, baina baliteke agiria egin dutenei azalpenak eskatu behar izatea.


Plana balioztagarria izango da baldin eta eduki beharko lituzkeen osagaiak baditu, ondo zehaztuta badaude, eta haien guztien arteko erlazioa koherentea bada.

Horrez gain, esku-hartzeko eredu bat definitzerakoan, komeni da begiratzea beste in-gurune batzuetan garatutako eredu eta joerak edo gai horretan aditu diren erakunde edo profesionalak proposatzen dutena begiratzea. Balioztatzaileak aztertu beharko du ea plan-gintza egileek kontuan hartu dituzten *erreferentziako agiriak*, esaterako, *Libro blanco sobre política a favor de los jóvenes de la Unión europea* (2001) y *Estudio sobre la situación de los jóvenes y la política de juventud en Europa* (IARD, 2001), eta abar.

## 2.2. Jarraipena eta tarteko balioztapenak

*Jarraipena* da programaren aplikazioari buruzko informazioa etengabe eta sistematiko-ki biltzea, desbideraketan antzeman ahal izateko eta kudeaketa hobetu ahal izateko. *Tar-teko balioztapenak* dira jasotako datu guztien azterketa kritikoak, jakiteko ea helburueta-ira iristeko urratsak betetzen ari diren, eta desbideraketak badaude, jakiteko zergatik gertatzen den hori; era berean, uneko esku-hartzearen baliozkotasuna, helburuen egokita-suna eta aurreikusitako ekintzak ere aztertzen dira.

Gazte Planaren jarraipena eta balioztapena hiru mailatan azter daitezke, aldi berean: proiektu bakoitzaren emaitzak, ekintzek eta eskuhartze lerroek eragindako ondorio espe-zifikoak, eta, azkenik, esku-hartze guztien ondorio orokorrak.



Programek eta ekintzek helburu espezifikoak eta ezaugarri bereziak dituzte maila guz-tietan, eta bakoitzak bere informazio sistema eduki behar du, balioztatzeko datu guztiak emango dizkiona.

Hurrengo koadroan dago adierazita zein den arduren banaketa, eta II. Gazte Planaren maila bakoitzaren jarraipena eta balioztapena egiteko behar den informazio bilketako itu-riak eta mekanismoak zein diren ere.

	Jarraipen eta balioztapen mailak		
	Proiektua / programa	Ekintza / eskuhartze lerroa	II Gazte Plana, bere osotasunean
<b>Jarraipenaren eta balioztapen arduraduna</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erakundea</li> <li>• Programen teknikari arduradunak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zuzendaritza Batzordea</li> <li>• Batzorde teknikoa</li> <li>• Planaren koordinatzaileak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zuzendaritza Batzordea</li> <li>• Batzorde teknikoa</li> <li>• Gazte Planeko idazkaritza</li> </ul>
<b>Datuak biltzeko iturriak eta mekanismoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erakundeetako erregistroak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Balioztatze fitxak</li> <li>• Galdera sortak</li> <li>• Agiriak</li> <li>• Bigarren mailako iturriak</li> <li>• Informazio osagarria</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Jarraipen txostenak</li> <li>• Bigarren mailako iturriak</li> <li>• Informazio osagarria</li> </ul>
<b>Datu tratamenduaren arduradunak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erakundea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kanpoko aholkularitza</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kanpoko aholkularitza</li> <li>• Gazte Planeko Idazkaritza</li> </ul>
<b>Txostenak egiteko arduradunak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erakundea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erakundeetako Gazte Planaren koordinatzaileak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kanpoko aholkularitza</li> <li>• Gazte Planeko Idazkaritza</li> </ul>

### 2.2.1. Proiektuen jarraipena eta balioztapena

Erakundeek aurkeztutako proiektuak dira, jarraipen eta balioztapenari dagokionez, zehatzenak. Erakunde bakoitzaren ardura da beren proiektuak definitzea, jarraipen sistema ezartzea eta bere irizpideen arabera balioztapenak egitea. Barne prozedura edozein dela ere, Gazte Plana balioztatze beharrezkoak diren oinarriko datuak eskaintzeko konpromisoa hartzen du; Planaren jarraipen zehatza egiteko, beharrezkoa da proiektu bakoitzaren jarraipena egitea.

Beste alde batetik, proiektua balioztatu badute, garrantzitsua da balioztapen txostena, edo, besterik ez bada, txosten horren laburpena, ematea Batzorde Teknikoari eta Zuzendaritza Batzordeari, lagun dezaten Planaren balioztapen partziala eta globala egiten.

### 2.2.2. Ekintzen eta eskuhartze lerroen jarraipena eta balioztapena

Jarraipenaren eta balioztapenaren maila dagokie Gazte Planeko ekintzei eta eskuhartze lerroei. Ekintzak dira antzekoak diren proiektu edo jardueren multzoak, helburu komuna dutenak, eta estrategia edo eskuhartze ildo berari erantzuten diotenak.

#### 2.2.2.1. Jarraipenaren eta balioztapenaren arduradunak

Zuzendaritza Batzordearen eta Batzorde Teknikoaren ardura izango da tarteko jarraipenak eta balioztapenak egitea, eta lan horretarako Erakundeetako Gazte Planaren langile koordinatzaileen laguntza izango dute, balioztapeneko kanpoko taldearen laguntza ere, eta, bestalde, Planean inplikaturako erakundeek informazioa izango dute.

Ekintzak balioztatzeko behar den informazioak erantzun beharko die Planaren balioztatpena planteatu zenean ezarri ziren galdera, balioztapen irizpide eta kalitate irizpideei. Horrela bada, Kalitatezko Gazte Planak behar du izan efikaza, estali behar du behar handien duen gazte populazioa, eta Planarekin zerikusia duten eragile guztiak hartu behar dute parte; planaren ekintzak egokienak izango dira helburuetara iritsi ahal izateko, eta era koordinatuan garatu beharko dira, baliabideak ahalik eta modu eraginkorrenean baliatuz. Hau da, honako irizpide hauen arabera aztertu beharko dira planaren implementazioa eta emaitzak:

- *Efikazia*: Balioztatu behar da ea zein neurritan lortu diren aurrez ezarritako helburuak, eta ea espero ziren emaitzak lortu ote diren, kontuan hartu gabe horiek guztiak lortzeak zein kostu ekarri duen. Efikazia analizatuko bada, alde aurretik proiektuaren helburu espezifikoak ezarri da egiaztatzeko moduan; horrela egin ez bada, berriro definitu beharko da helburua, edo, bestela, beste erreferentzia batzuk erabili beharko dira.
- *Estaladura*: Programa jasotzen duen populazioaren eta programa jasotzeko beharra duen populazio osoaren arteko aldea da. Komeni da aztertzea ea alderik baden populazio taldeen artean, eta jakin behar da ea talde guztiak duten zerbitzua edo programa jasotzeko aukera bera; Gazte Planari dagokionez, proposatzen dugu estaladura sexuaren arabera analizatzea, eta egoki irudituz gero, adinaren arabera (15-19, 20-24 eta 25-29 urteko bitarteko taldeak).
- *Eraginkortasuna*: Kontsumitutako baliabideen arabera lortu diren emaitzak neurtzeko da. Eraginkortasuna neurtzerakoan, zailena izan ohi da erreferentziatzko balioa ezartzea (elkarrekin konpara daitezkeen proiektuetara jo daiteke, edo aurreko urteko proiektu berdinerak).
- *Egokitasuna*: Balioztatzen du ea programatutako ekintzak egokiak ote diren eskuhartze lerroak garatzeko eta helburuetara iristeko, ea aurrera jarraitu behar den eta ea aldaketarik egin behar den.
- *Koordinazioa*: Helburu bera lortu nahi duten eragile eta ekintza guztien arteko lankidetzak bideratzeko mekanismoak balioztatzen ditu.
- *Parte hartzea*: Irizpide honen arabera balioztatzen da ea eragile guztiak aukera duten plangintza fase guztietan eta ekintzen balioztatpenean parte hartzeko.

#### 2.2.2.2. Datu iturriak eta informazioa biltzeko mekanismoak

Honakoak dira ekintzak eta eskuhartze lerroak balioztatzeko datu iturriak:

- a) Balioztapen fitxak.
- b) Proiektuetako arduradunei bidalitako galdera-sorta.
- c) Gazte Planaren barruan, erakundeek sortutako agiriak, txostenak, gidak, ikerketak,...
- d) Bigarren mailako iturriak: EUSTAT, eta abar.
- e) Informazio osagarria, bai adierazleak egiteko, bai programazio eta balioztapen fitxak bete ez diren ekintzen egoera zein den jakiteko.

#### a) *Balioztapen fitxa*

Balioztapen fitxaren egitura programazio fitxaren antzekoa da, baina, honakoan, zehaztu beharreko informazioa dagokio egikaritzari (jarduerak, helburua eta gastua), eta,

bestalde, onuradunen eta balioztapenari buruzko datuen atalari dagokionez, jardueraren irismenari buruzko informazioa eman beharko da.

Honako eremu hauek ditu:

- Arloa–Eskuhartze lerroa–Ekintza: datu baseko zerrendan aukeratu behar da.
- Erakundea eta Saila: datu baseko zerrendan aukeratu behar da.
- Egindako Ekintza: labur-labur deskribatu behar dira egindako jarduerak.
- Erabilitako tresna: ekintza arautzen duen araudiari edo dena delako tresnari dagokio, tresna hori baldin badago (adibidez, deialdiko Agindua, Dekretua,...).
- Lortutako helburuak: zehaztu egin beharko da ea erabat bete diren, zati bat, edo ez diren bete.
- Onuradunak: programaren onuradun izan diren gazte kopurua zehaztu beharko da, ahal den guztietan, sexuaren arabera, eta egoki irudituz gero, adin taldeka (15-19, 20-24 eta 25-29 urte bitarteko taldeak).
- Erakunde arduradunak eta ardurakideak: dagokion erakundea aukeratu behar da datu baseko zerrendan.
- Egindako gastua: gazteei dagokien gastua.
- Aurrekontu saila.
- Balioztapen datuak: jarduera sartuta dagoen Gazte Planeko ekintzari dagozkion adierazleen balioa (I. Eranskina).
- Ekintzaren teknikari arduraduna: garatutako jardueraren arduraduna identifikatzea.

Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendaritzak, alegia, Gazte Planaren Idazkaritzak, programatutako proiektu guztien fitxak dituen datu basea bidaliko die erakunde guztiei, proiektuaren arduradunak egindako jarduerari buruzko informazioa eman dezan. Erakunde bakoitzean Plana koordinatzen duenak jaso eta bildu beharko ditu ebaluazio fitxak, osatuta, eta Gazteria Zuzendaritzara bidaliko ditu.

#### b) *Proiektuen arduradunei zuzendutako galdera sortak*

28 galderaz osatuta dago, hiru ataletan banatuta (ikus II. Eranskina):

- Lehenengo atala proiektuaren balioztapenari buruzkoa da; helburu du jakitea arduradunek nola interpretatzen dituzten proiektuaren emaitzak eta nola balioztatzen dituzten egikaritzaren zenbait alderdi.
- Bigarren ataleko galderen bidez, jakingo dugu teknikariek zein eragozpen izan duten programazio eta balioztapen fitxak betetzeko.
- Hirugarren atalean, Planaren garapena hobetzen lagunduko duten prozedurei buruzko informazioa, eta bai Planaren ezarpen prozesuaren balioztapenari buruzko informazioa ere, biltzeko bidea eskaintzen da.

Eusko Jaurlaritzaren Gazteria Zuzendaritzak erakundeetara igorriko ditu galdera sortak, balioztapen fitxarekin batera, proiektuaz arduratzen diren teknikariek bete ditzaten. Planaren koordinatzaileak jasoko ditu betetako galdera sortak, eta Gazteria Zuzendaritzara bidaliko ditu.

2004. eta 2005. urteetan, galdera sortaren aurreneko bi atalak baino ez dituzte bidaliko, 2003 eta 2004ko jarraipen txostenak egiteko; 2006an, galdera sorta osoa bete beharko da.

### c) *Agiriak, txostenak, gidak*

Zenbait kasutan, Gazte Planean aurreikusitako ekintzak izan ohi dira, soil-soilik, agiriak sortzea, ikerketak egitea, gidak egitea,... Beste zenbaitetan, arauak edo bestelako agiri teknikoak egitea. Bietan ere, informazio iturri dira agiriak.

### d) *Bigarren mailako iturriak*

Zenbait adierazle egin ahal izateko, bigarren mailako iturrietara jo behar izaten da, alegia, Planekoak ez diren eta gazteei buruzko datuak dituzten beste sistema batzuetara (EUSTAT, azterketa monografikoak, Behatokiak,...) jo behar izaten da informazioa biltzeko. Adibidez, enplegua sustatzeko programen estaldura kalkulatu ahal izateko, halabeharrez jakin behar da ea zenbat gazte diren enplegu eskatzaile.

### e) *Beste zenbait iturri*

Beste iturri batzuk ere erabiliko dira aurreko baliabideen bidez ezin izan bada nahikoa informazio jaso.

## 2.2.2.3. Datuen tratamendua

Ekintzak, eskuhartze lerroak eta plana bere osotasunean balioztatzeko informazio garrantzitsuena Aholkularitzak ustiatuko du. Honakoa izango da prozedura:

1. Erakundeek informazio balioztapen fitxetara ekarritako informazioa biltzea;
2. Gazte Planeko ekintzei dagozkien emaitzen adierazleak egitea;
3. Proiektuetako arduradunei bidalitako galdera sortetako erantzunak kudeatzea.

Adierazleak eta galdera sortei emandako erantzunak antolatuko dira eurei dagokien balioztapen irizpidearen arabera, eta sailkatuko dira jardueren, ekintzen eta eskuhartze lerroen arabera. Hori egindakoa, Gazte Planeko koordinatzaileei bidaliko zaizkie, dagokien txostena idazteko erabil dezaten.

## 2.2.2.4. Jarraipen txostena idaztea eta tarteko balioztapena

Erakundeko koordinatzaileak egin beharko ditu ordezkatzeko duen erakundeari dagozkion ekintzen jarraipen eta balioztapen txostenak.

Balioztapen txostenek, honako osagai hauek eduki beharko dituzte:

- Sarrera.
- Metodologia.
- Egindako probaren eta bere emaitzen deskribapena.
- Emaitzen interpretazioa eta balioztapena.
- Ondorioak eta gomendioak.

### 1. Kapitulua: Sarrera

Balioztapenaren helburuak eta zein testuingurutan egiten den jaso beharko du.

### 2. Kapitulua: Metodologia

Bigarren kapitulu hau metodologiari dagokio, eta honakoa adierazi beharko da:

- Balioztatze mota. Honako kasu honetan, *prozesuko* balioztatzea da, tarteko emaitzak balioztatzeaz gain, neurrien egikaritzarekin zerikusia duten beste alderdi batzuk ere balioztatzen dituelako; balioztapen *mistoa* izango da, programazioa eta egikaritzea egin duen erakunde barneko eta kanpoko balioztatzaileak izango direlako; eta *prestakuntzazkoa* ere izango da, balioztatze horren ondorioak erabili ahal izango direlako Planak indarrean dirauen bitartean hobekuntzak egiteko.
- Balioztatzeko erabili diren irizpideak.
- Informazioa lortzeko erabili diren datu iturriak, teknikak eta prozedurak (galdera sortak, elkarrizketak, jarraipen fitxak,...).

### 3. Kapitulua: Programen eta beren emaitzen deskribapena

Dagokion erakundeak egindako jardueren zerrenda jasoko da, eskuhartze lerroaren arabera sailkatuta, eta, horrekin batera, finantza exekuzioa eta balioztatzen den lehendabiziko urteko emaitzak ere bai (tarteko emaitzen adierazleak).

### 4. Kapitulua: Balioztapena

Uneko urtean lortutako emaitzak eta abiarazitako proiektuak interpretatzean eta balioztatzean datza laugarren kapituluak, eta programaren egikaritzari buruzko iritzia eman beharko da. Hirugarren kapituluak zehatz-mehatz eman daitezke datuak, alegia, jarduera guztiak zerrendatu daitezke; baina horien balioztapena orokorragoa izan beharko da, ekin-tza edo eskuhartze lerro mailan balioztatu beharko baita.

Analisia edo balioztapena da erabakitzea ea egindako jarduerak erantzuten ote dieten nahi diren kalitate irizpideei; horretarako, emaitzen adierazleak eta galdera-sorten erantzunak erabiliko dira, aurretik Aholkularitzak koordinatzaileei bidalitakoak, hain zuzen. Ondoko koardroan daude zehaztuta irizpide horietako bakoitza analizatzeko erabiliko diren datu motak.

Irizpidea	Balioztatzeko datuak
Efikazia	Tarteko emaitzen adierazleak Aurrekontuaren egikaritzea maila
Eraginkortasuna	Kostua, onuradun edo zerbitzu unitate bakoitzeko
Estaldura	Tarteko emaitzen adierazleak
Egokitasuna	Galdera sortetako erantzunak ustiatzea (1. zatia)
Koordinazioa	Galdera sortetako erantzunak ustiatzea (1. eta 3. zatiak)
Parte hartzea	Galdera sortetako erantzunak ustiatzea (1. eta 3. zatiak)

II: Gazte Planeko 1.1. eskuhartze lerroaren balioztatzea, Eusko Jaurlaritzari dagokion adibidea:

**1.1. Eskuhartze lerroa:** Gazteentzat enplegua sortzeko eta mantentzeko bideratutako politika koordinatua bultzatzea, ekintza positiboen aplikazioaren bidez, zerga laguntzak emanez eta kontratatzeke diru laguntzak emanez

#### *Efikaziaren balioztatpena*

Hiru datu mota hartuko dira aintzat:

- Aurreikusitako aurrekontutik egin den gastua, programazio eta balioztatze fitxetan jasota dagoena.
- Eraitzen adierazleak, balioztatze fitxetan jasota daudenak:
  - Gazteak kontratatzerara bideratu den diruz lagundutako kontratu kopurua.
  - Enpresaren kapital sozialari nahitaez egin beharreko ekarpena finantzatzearren diru laguntza jaso eta Gizarte Ekonomiako enpresetan sartu den Gazte kopurua.
  - Laneratzeko arazoak dituzten gazteentzako enplegua sustatzearren, ekintza positiboaren irizpidea aplikatu duten zenbat enpresa kontratatu dituen administrazioak.
- Finantza egikaritzari, helburuen lorpenei, eta, halakorik balego, desbideraketan arazoie buruzko erantzunak (2, 3, 4, 5, 6, 7, 9i eta 9j galderak).

Efikazia balioztatzeko, gauzatutako aurrekontuaren ehunekoa aztertu beharko da, eta, ondoren, programetako helburuak kuantifikatuta badaude, alderatu beharko dira egindako kontratu kopurua aurreikusitakoarekin; kuantifikatu gabe balego, aurreko urteetako edo antzeko programetako emaitzekin alderatu beharko da. Galdera sortako galderak lagunduko dute sortutako desbideraketak interpretatzen.

#### *Estaladura balioztatzea*

Ekintzen onuradun izan den xede populazioaren ehunekoa aztertu beharko da, alegia, enplegu eskatzaile diren gazteetatik zenbat estali dituzten laguntzek, eta aurreko urteetako estaldurekin alderatu beharko da. Era berean, aztertu egin beharko da kontratatzeke laguntzek mesede handiagoa egiten ote dieten sexu batekoei edo bestekoei.

Horrez gain, kontuan hartu beharko da programetako arduradunek zer irizten dioten estaldurari (9e eta 9f galderak).

Estaladura adierazleak oso baliagarriak dira jakiteko nola egokitzen zaizkion enplegu politikak populazioaren eskaerari.

#### *Eraginkortasuna balioztatzea*

Badago enplegua sustatzeko programen eraginkortasuna aztertzerik, onuradun bakoitzeko kostua alderatuz gero, betiere onurek (kasu honetan, kontratuek) antzeko ezaugarriak badituzte.

.../...

.../...

#### *Koordinazioa balioztatzea*

Balioztatu egin beharko da ea zein harreman duten enplegua sustatzeko Jaurlaritzaren programek eta gainerako erakundeen programek; horretarako, teknikariek 9i, 14 eta 15. galderei erantzun beharko diete.

Jarraipeneko azken txostenean, 2005. urteari dagokion txostenean, alegia, kontuan hartu beharko dira erakundeak parte hartu duen sustapen eta garapen prozedurak, nolabait 1.1. eskuhartze lerroari eragiten diotenak (20-27 galderak).

#### *Egokitasuna balioztatzea*

Aztertu egin beharko da ea teknikarien ustez egokiak eta nahikoak diren eskuhartze lerroan ezarritako neurriak, eta ea, haien ustez, nahiko baliabide duten (galdera sortako 8, 9a, 9b, 9c eta 9d galderak).

Bestalde, Gazte Planak eskuhartze lerro hori garatzeko egindako ekarpena ere identifikatu beharko da, hau da, Plana bera izatea egokia den (galdera sortako 17. galdera).

#### *Parte hartzea balioztatzea*

Irizpide horren itzalean aztertu beharko dira, enpleguaren alorrean, zabalkunde eta informazio neurriak, gazteak parte hartzeko bideak eta parte hartu duten maila zein den ere (galdera sortako 9g, 9h, 9k, 10, 11, 12 eta 13 galderak).

Jardueren emaitzak interpretatu eta aztertzeaz gain, txostenaren laugarren kapituluan balioztatu beharko dira arduradunek programazio eta balioztapen fitxak betetzerakoan izan dituzten eragozpenak. Horretarako, galdera sortaren bidez jasotako datuak erabiliko dira (2. zatia, 18 eta 19 galderak).

Horrez gain, 2005. Urtearen jarraipenari dagokion txostenak balioztatu beharko du Gazte Planaren ezarpen prozesu osoa, galdera sortaren 3. Zatian bildutako informaziotik abiatuta (20-28 galderak).

### *5. Kapituluak: ondorioak eta gomendioak*

Azken kapituluan, txostenaren egileak egoki iruditzen zaizkion ondorioak eta gomendioak azalduko ditu; horien jatorrian izango da aurreko kapituluan izandako balioztapena. Gomendioek errealistak, operatiboak ahalik eta praktikoenak izan beharko dute. Programa jakinei, antolamendu kontuei edo prozedurei buruzkoak izan litezke.

Ondorioen eta gomendioen esparruari dagokionez, oso interesgarria da praktika egokiak identifikatzea, beste testuinguru batzuetan egiteko proposatzearen. Praktika egokitzat ulertu behar dugu aurrez adierazitako kalitate irizpideak betetzen dituztenak eta ondo funtzionatzen dutenak, batez ere funtzionamendu hori froga baldin badaiteke balioztapen txosten baten bidez.



### 2.2.3. Planaren jarraipen eta balioztapen orokorra

Jarraipenaren eta balioztapenaren hirugarren maila Plan osoari dagokio. Arlo honetan ere, Zuzendaritza Batzordea eta Batzorde Teknikoa dira arduradunak, eta kanpoko talde balioztatzailearen laguntza izango dute.

Balioztapen partzialetarako erabili diren irizpide bertsuak erabiliko dira balioztapen osoa egiterakoan, baina ez dira balioztatuko eskuhartze lerro bakoitzak izan dituen eraginak, Planaren ondorio osoak baizik. Horretarako, beharrezkoa izango da, jarraipen partzialeko txostenez gain, gazteen egoera islatzen duten zeharkako beste adierazle batzuk ere erabiltzea.

Aholkularitzak jasoko du behar den informazio osagarri guztia, bigarren mailako adierazleak egingo ditu eta balioztapen osoari dagokion txostena idatziko du. Txostenaren egitura izango da eskuhartze lerroen balioztapen txostenen antzekoa, baina programen deskribapena ez da horren zehatza izango; balioztapena arloka egin beharko da; erakundeen balioztapenak laburbildu eta, egoki irudituz gero, beste analisi batzuk ere gaineratuko dira.

Txosten honek jaso beharko du, laburbilduta, Planeko ekintzak zenbateraino bete diren.

### 2.2.4. II. Gazte Planeko ekintzen jarraipen eta balioztapen faseen laburpena

Faseak	Eragile arduradunak			
	Erakundeak	Gazte Planaren Idazkaritza	Zuzendaritza Batzordea	Aholkularitza
Balioztapen fitxak eta galdera sortak betetzea	X			
Datuak biltzea		X		
Datuak tratatzea, adierazleak eratztea eta datuak beste erakunde batzuetara bidaltzea, antolatuta				X
Erakundeek jarraipen txostenak idaztea eta urteko balioztapena egitea	X			
Txosten partzialak berrikustea				X
Txosten orokorra idaztea				X
Txostenak berrikustea		X		
Txostenak onartzea			X	

### 2.3. Emaitzak eta eragina balioztatzea

Atal honetan deskribatu dugu Gazte Planaren emaitzak eta eragina balioztatzeko prozedura.

#### 2.3.1. Emaitzak balioztatzea

Talde balioztatzaileak balioztatu beharko ditu ekintza eta eskuhartze lerroak, bana-naka eta orokorrean, eragin dituzten ondorioak, planaren helburuak lortu ote diren jakitearren.

Aurrez adierazi dugun bezala, ekintza bakoitzak zein ondorio eragin duen jakiteko, honako osagai hauek aztertu beharko dira:

- *efikazia*, hau da, lortu den eta espero zen emaitzen arteko erlazioa,
- *eraginkortasuna*, hau da, emaitzaren eta ekintzaren kostuaren arteko erlazioa,
- *estaldura*, alegia, esku-hartzea behar dutenetatik zenbat diren onuradunak,
- *erabilera*, erabili diren eta eskura dauden baliabideen arteko erlazioa,
- esku-hartzearen *kalitatea*, hau da, eskaintako arreta, eta
- ekintzaren garapena dela eta, erabiltzaileen *gogobetetasuna*.

Oro har, ekintza nolakoa den, halako edo bestelako osagaiak aztertu beharko dira:

- Zerbitzu berriak sortu edo garatu behar badira, erabiltzaileen estaldura, erabilera eta gogobetetasuna azter liteke. Kalitateari dagokionez, horren balioztapenak tresna espezifikoak eskatzen ditu, eta ez da komeni fase honetan aztertzea.
- Ekintzak izango balira administrazio edo lege neurriak aplikatzeari buruzkoak, eta diru laguntzak emateari buruzkoak, estalduraren hainbat ezaugarri azter litezke: neurriaren onuradun diren gazteen proportzioa, xede populazioak neurri horien berri zenbateraino duen edo estali gabeko eskaera, esaterako.
- Gidak, eskuliburuak, azterketak, txostenak edo horrelako agiriak sortu behar direnean, edo bestelako tresnak, adibidez, datu baseak edo informazio zerbitzu telematikoak sortu behar direnean, produktuaren beraren edukia planean aurreikusitakoari egokitzen ote den aztertzeaz gain, erabiltzaileen estaldura edo gogobetetasuna ere azter liteke.
- Eragina epe luzekoa duten ohitura edo jarrerak indartzeko ekintzak badira, lehenengo eta behin aztertu beharko da ea zein jarduera abiarazi den ohitura horiek indartzeko (hitzaldiak, kanpainak, didaktika materiala,...), eta, ondoren, jarduera horiek efikazak ote diren.

Azkenik, diru kostua duten jarduera guztiak baliozta daitezke eraginkortasunaren araber, baldin eta ondorioak neurtu badaitezke.

Hala bada, balioztatu behar den ekintzaren araberakoak izango dira informazioa bilatzeko teknikak eta emaitzak aztertzeko prozedurak. Gazte Planari dagokionez, honakoak erabiltzea proposatzen dugu:

- *Agiriak analizatzea*, betiere ekintzen emaitzak agiri teknikoetan isla badaitezke. Hori gertatzen da jarduera mota denean agiriak sortzea edo neurriak ezartzea.  
Agiriak sortzeari dagokionez, beharrezkoa izango da jakitea bukatuta dauden, egiten ari diren, proiektuan dauden edo ez egitea erabaki den.
- *Emaitzen adierazleak erabiltzea*, baldin eta esku-hartzeen emaitzak kuantitatiboki isla badaitezke. Ia jarduera guztietara aplikatu daitezke, eta Plana bukatu ondorengo egoera alderatzen da aurreko egoerarekin edo erreferentzia gisa balio dezaketen beste batzuekin.
- *Inkesta espezifikokoak egitea*, ekintzen balioztapenak eskatzen badu erabiltzaileen gogobetetasuna, zerbitzuaren arreta maila edo populazioak esku-hartzeari buruz duen ezagutza maila neurtzea. Ekintza horiek dagozkien, batez ere, zerbitzuak sortzeari edo garatzeari, baina gainerako neurriei ere aplikatu daitezkie, gazteen iritzia jakin nahi izatekotan.

### 2.3.2. Eragina balioztatzea

Plangintzan jasotako esku-hartzeek epe luzera zer eragin izan duten neurtzea da. Analizatzen diren gaiak izan ohi dira gazteen gizarte egoeran izandako aldaketak, edo, bestela, jokabide, jarrera eta ohituren aldaketak. Oro har, aldaketa horiek izan ohi dira zenbait ekintza eta faktoreen elkarreraginaren ondorio, sarritan Planetik kanpoko ekintza eta faktoreak direnak.

Eraginak badu erlaziorik helburu orokorrak lortzearekin eta esku-hartze ildoak garatzearekin, eta, gehienetan, planaren indarraldia bukatu eta gerora aztertu ohi da.

Gazte Planaren eragina balioztatzeke, honako teknika eta prozedurak proposatzen ditugu:

- *Eraginari buruzko adierazleak erabiltzea*, baldin eta kuantitatiboki isla badaitezke. Halakoetan, beharrezkoa izango da adierazleen bilakaera aztertzeko, hau da, Plana abiarazi aurreko egoerarekin alderatzea, edo, bestela, erreferentzia izan litezkeen beste ingurune batzuetakoekin alderatzea.
- *Inkesta espezifikokoak egitea*, betiere aztergaiak baldin badira jarrerak, ohiturak, ezagutzak edo hartutako ikasketak erabiltzea.
- *Eztabaida taldeak*, Planean inplikaturik dauden gazteek, profesionalek, politikariek, elkarteetako ordezkariak edo abarrek arloetan aplikatutako neurrien eraginkortasunari buruz duten iritzia zein den jakiteko.
- *Aldizkako inkestetarik datuak aztertzeko*. Planaren zenbait eskuhartze lerroen eragina aztertzeko bada informazio erabilgarria, EAEn egin ohi diren aldizkako inkestetan jasota dagoena. Hori gertatzen da, esaterako, *Gazteriaren erretratua edo soziolinguistika mapa* inkestekin. Komeni da ikerketa horien berri izatea, eta, aldi berean, Gazte Planaren esku-hartze ildoak aplikatzerakoan sor daitezkeen aldaketak erabiltzea.

- *Gazte Planarekin zerikusia duten auziak aldizkako inkestetan sartzea.* Proposatzen dugu EAEn sistematikoki egiten diren inkestetan sartzea gaur egungo inkestetan ohikoak diren galderen antzekoak. Adibide bat jartzearen, 1999-2000ko Gazteriaren erretratua inkestan galdetzen zuten ea gazteek ba ote zekiten Gazte Planaren berri; galdera horrez gain, beste galdera batzuk ere egin litezke, gazteei zuzendutako beste zerbitzu batzuei buruzkoa, adibidez gazteen informazio sarea, gazte-txartela edo lanbiderako aholkularitza eta informazio sistemari buruzkoak.

**I. ERANSKINA**

**II. Gazte plana  
balioztatzeko  
proposatu  
diren adierazleak**

## 1. ARLOA: LANA ETA LANERATZEA

1.1. Politika koordinatua sustatzea, gazteentzako lanpostuak sortzea eta mantentzea helburu duena, ekintza positiboko neurriak hartzearen, zerga-abantailak ezartzearen eta kontratazioari dirulaguntzak ematearen bitartez

Ekintza zk.	Ekintza	Jarraipen eta balioztapen adierazleak	Arduradunak
1.1.1	Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan zerga-neurriak hartzea, gazteentzako lanpostuak sortzen, mantentzen eta finkatzen laguntzeko	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Araudia</li> <li>• Gazte onuradunen kopurua</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Aldundiak</b> – Ogasuna</li> </ul>
1.1.2	Iraupen luzeko langabezian dauden gazteen praktiketako kontratazioa indartzera zuzendutako diru-laguntza ildo baten garapena	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kontratu kopurua x 100/ enplegu eskatzaile gazteen kopurua</li> <li>• Kontratuen iraupena</li> <li>• Aldea sexuaren arabera</li> <li>• Kostua / onuraduna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Eusko Jaurlaritza</b> – Lan Saila</li> </ul>
1.1.3	Gazte langabetuak kontratatzeko diru-laguntzak ematea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kontratu kopurua x 100/ enplegu eskatzaile gazteen kopurua</li> <li>• Kontratuen iraupena</li> <li>• Aldea sexuaren arabera</li> <li>• Kostua / onuraduna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Eusko Jaurlaritza</b> – Lan Saila</li> </ul>
1.1.4	Enplegua sustatzeko ekintza positiboko irizpidea aintzat hartzea administrazioak laneratze-arazoak dituzten kolektiboak kontratatzen dituzten enpresekin egiten dituen kontratuetan.	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kontratu kopurua x 100/ enplegu eskatzaile gazteen kopurua</li> <li>• Kontratuen iraupena</li> <li>• Aldea sexuaren arabera</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Eusko Jaurlaritza</b></li> <li>• <b>Aldundiak</b></li> <li>• <b>Udalak</b></li> </ul>
1.1.5	Gazte langabetuak gizarte-ekonomiako enpresetako kide egin daitezzen laguntzea, enpresaren gizarte-kapitalari egin beharreko ekarpenaren aldi bereko finantzaketaren bidez	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kontratu kopurua x 100/ enplegu eskatzaile gazteen kopurua</li> <li>• Aldea sexuaren arabera</li> <li>• Kostua / onuraduna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Eusko Jaurlaritza</b> – Lan Saila</li> </ul>
1.1.6	Enplegu-gune berriak eta jada abian jarri diren esperientzia pilotuak identifikatu eta aztertuko dituen txostena lantzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Txostena bukatua</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Eusko Jaurlaritza</b> – Lan Saila – Nekazaritza Saila</li> </ul>

1.2. Enpleguaren banaketa sustatzeko politika koordinatua garatzea

Ekintza zk.	Ekintza	Jarraipen eta balioztapen adierazleak	Arduradunak
1.2.1	Plantilak berrantolatu eta berregituratzea, administrazio publikoetan gazteentzako lanpostu berrien sorrera sustatzeko	<ul style="list-style-type: none"> <li>Plantila berregituratzearekin zerikusia duten jarduerak</li> <li>Lanari dagokion denbora banatzearen ondorioz gazteei egindako kontratu kopurua</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Eusko Jaurlaritza</li> <li>Aldundiak</li> <li>Udalak</li> </ul>
1.2.2	Aparteko orduak kentzearen edo jardunaldia murriztearen bidez gazteentzako enplegua sortzen duten enpresei laguntzak ematea	<ul style="list-style-type: none"> <li>Laguntza jasotzen duen enpresa kopurua</li> <li>Gazte onuradunen kopurua</li> <li>Kostua/ onuraduna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Eusko Jaurlaritza – Lan Saila</li> </ul>
1.2.3	Gizarte-eragileei (enpresariei eta langileei) negoziazio kolektiboan jardunaldi-murrizketa sartzea bultzatuko dieten neurri pizgarriak abian jartzea, gazte-enplegua handitu asmotan	<ul style="list-style-type: none"> <li>Kontratu kopurua x 100/ enplegu eskatzaile gazteen kopurua</li> <li>Kontratu kopurua x 100/ lan denbora murrizten duten enpresen kopurua</li> <li>Aldea sexuaren arabera</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Eusko Jaurlaritza – Lan Saila</li> </ul>
1.2.4	Lan-banaketarako neurrien berrikuspena, garapena eta komunikazioa (ordezkapen-kontratua eta beste neurri batzuk)	<ul style="list-style-type: none"> <li>Neurriak berrikustearekin, garatzearekin eta komunikatzearekin zerikusia duten jarduerak</li> <li>Kontratu kopurua x 100/ enplegu eskatzaile gazteen kopurua</li> <li>Aldea sexuaren arabera</li> <li>Kostua/ onuraduna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Eusko Jaurlaritza – Lan Saila</li> <li>Nekazaritza Saila</li> </ul>

1.3. Enplegu bila dabilizan edo enpresa berria sortu nahi duten gazteentzako, leihatila bakarreko zerbitzua garatzea

Ekintza zk.	Ekintza	Jarraipen eta balioztapen adierazleak	Arduradunak
1.3.1	Honakoei buruzko informazioa jasoko duen datu-base bat mantendu: gazte hautagaien curriculuma, enpresen enplegu-eskaera eta lanpostu berriak. Elikatuta egon dadila eta telematikaren bidez, sarea osatzen duten alde guztiei zerbitzua eskaintzeko	<ul style="list-style-type: none"> <li>Sartutako curriculum kopurua</li> <li>Enpresen eskaera kopurua</li> <li>lanbide.net orrialdearekiko konexio kopurua</li> <li>Kudeatutako eskaintza kopurua</li> <li>Bitartekaritza bidez gazteentzat lortutako lanpostu kopurua</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li><b>Eusko Jaurlaritza</b> – Langai</li> </ul>
1.3.2	Lanbide-orientazioko gida lantzea, lana sortu eta bilatzeari dagokionez gazteei erantzun eta aholkua emango diena. Ildo horretan, gida horrek lanarekiko jarrera aktiboagoa bultzatuko du lana bilatzeko orduan, eta hori ez ezik, aholkuak ere emango ditu enpresa berriak sortzeko aukerei, enplegu-gune berriei, lan-merkatuko prestakuntza-eskakizunei, lana bilatzeko estrategiei eta gizarte-trebetasunak garatzeari buruz	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gida egiteko jarduerak</li> <li>Gida</li> <li>Banatutako ale kopurua</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li><b>Eusko Jaurlaritza</b> – Lan Saila – Nekazaritza Saila – Hezkuntza Saila</li> </ul>
1.3.3	Biztanleria langabetuaren laguntza pertsonalizatua indartu, lan merkatura sartzeari begira, Orientazio-Zerbitzuen bidez. Horiek gazte langabetuaren ibilbidearen, jarraipen eta harrera osoa bermatu beharko dute	<ul style="list-style-type: none"> <li>Orientabideak jasotako gazte kopurua</li> <li>Gogobetetasun maila</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li><b>Eusko Jaurlaritza</b> – Langai</li> </ul>
1.3.4	Industria gaietan, Leihatila Bakarra gazterientzatzat	<ul style="list-style-type: none"> <li>Leihatila sortzeko jarduerak</li> <li>Egindako kontsulta kopurua</li> <li>Gazteek zenbateraino dakituen leihatilaren berri</li> <li>Gogobetetasuna zerbitzua-rekin</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li><b>Eusko Jaurlaritza</b> – Industria Saila</li> </ul>



1.4. Autoenplegua eta gazteek gidatutako enpresak sortzea sustatzera zuzendutako politika koordinatua garatzea kooperatibismoaren eta beste formula batzuen bitartez

Ekintza zk.	Ekintza	Jarraipen eta balioztapen adierazleak	Arduradunak
1.4.1	Gazteen artean enpresarako bokoak piztea helburu izango duen proiektuak koordinatzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Enpresak sortzeko praktikak egiteko laguntzen gazte onuradunen kopurua</li> <li>• Enpresak sortzeko laguntzen gazte onuradunen kopurua</li> <li>• Diruz lagundutako proiektuen kopurua</li> <li>• Aurkeztutako proiektuen kopurua</li> <li>• Eratutako enpresa kopurua</li> <li>• Kontratu kopurua x 100/ enplegu eskatzaile gazteen kopurua</li> <li>• Aldea sexuen arabera</li> <li>• 4 urteren buruan finkatutako enpresa kopurua</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Eusko Jaurlaritza</b></li> <li>• <b>Aldundiak</b></li> <li>• <b>Udalak</b></li> </ul>
1.4.2	Autoenplegu gaztea sustatzeko laguntzak ematea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Enpresa sortzeagatik onura jaso duten gazteak</li> <li>• Diruz lagundutako proiektu kopurua</li> <li>• Aurkeztutako proiektu kopurua</li> <li>• Eratutako enpresa kopurua</li> <li>• Kontratu kopurua x 100/ enplegu eskatzaile gazteen kopurua</li> <li>• Aldea sexuen arabera</li> <li>• 4 urteren buruan finkatutako enpresa kopurua</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Eusko Jaurlaritza</b> – Lan Saila</li> </ul>
1.4.3	Autoenplegua sustatzeko diru-laguntzei buruz, euskal gazteentzako aholkularitza zentralizatzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aholkularitza zentralizatze-ara bideratutako ekintzak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Eusko Jaurlaritza</b> – Lan Saila</li> </ul>
1.4.4	Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan autoenplegua eta gazteek gidatutako enpresa berriak sortzeko proiektuetan inbertsioak egitearen aldeko zerga-neurriak hartzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Araudia</li> <li>• Gazte onuradunen kopurua</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Aldundiak</b> – Ogasun Saila</li> </ul>
1.4.5	Gazteek sortutako enpresen zerga-ordainketa atzeratzea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gazte onuradunen kopurua</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Aldundiak</b> – Ogasun Saila</li> </ul>
1.4.6	Arrisku-Kapitala Fondoaren kudeaketa, teknologia berriak eta informazioaren gizartearekin erlazionatutako enpresen hasierarako, eta gazteen eskutik enpresa gehiago sortzeko	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Enpresak sortzeko Arrisku kapitala jasoko duen proiektu kopurua</li> <li>• Gazte onuradunen kopurua</li> <li>• Eratutako enpresa kopurua</li> <li>• 4 urteren buruan finkatutako enpresa kopurua</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Eusko Jaurlaritza</b> – Industria Saila</li> </ul>

.../...

.../...

Ekintza zk.	Ekintza	Jarraipen eta balioztapen adierazleak	Arduradunak
1.4.7	Udalek gazteentzako enpresa berriak sortzeko tokiak aldi baterako uztea	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kokatutako enpresa kopurua</li> <li>• Gazte onuradunen kopurua</li> <li>• Eskaera kopurua</li> <li>• 4 urteren buruan finkatutako enpresa kopurua</li> <li>• Zerbitzuarekiko gogobetetasuna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Udalak</b> – Ekonomia sustapena</li> </ul>
